



San Prudentzio jaiak Lazkaon



**Aste Santua
Seguran**



**Gazta eguna
Idiazabalen**



3 ORDAINDU ETA 4 ERREBELATU

FOTOETXE

Zuzenketak argazkiz argazki



**JAKINTZA
IKASTOLA**

ORDIZIA

Kalitatea:

zilarrezko



saria



Batxilergoa Jakintza ikastolan

**Zientifiko teknikoa
eta Osasun Zientziak
Giza eta Gizarte Zientziak**

**Gertuko harremana eta
jarraipenarekin emaitza
bikainak lortzen ditugu**

**Deitu eta elkarrizketa
adostuko dugu
(943 16 05 40)**

Karmele Iturbe Eguren

**Buenos Airesko San Isidro Ospitalean
Terapeuta izandakoa**

karmeleiturbe@hotmail.com

Labeaga, 66, tarteko solairua

Tel.: 943 72 55 66

URRETXU

**P
S
I
K
O
T
E
R
A
P
E
U
T
A**

SENTSIBILITATEA, KONFIANTZA, ARGITASUNA...

Goierritarra

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

Goierritarrak Kultur Elkartea
Dorre-etxea, 1 (Postetxe gainean)
124 posta-kutxa ORDIZIA
Tfnoa: 943 88 96 12
Faxa: 943 88 27 19
Posta elektronikoa:
goierritarra@topagunea.com

Zuzendaria: Loinaz Agirre

Erredakzioa: Iñaki Gurrutxaga

Maketazioa: Mikel Albisu

Publizitatea: Argider Mujika

Zenbaki honetako kronista eta

kolaboratzaileak: Joseba Telleria, Aitor Calvillo, Xabier Urteaga, Nekane Altuna, Edurne Albizu, Edurne Soraluze, Agurtzane Bikuña, Aitor Tello, Aitziber Murua, Aimar Maiz, Iñaki Ugalde, Mari Flor Mendizabal, Pello Barandiaran eta Joxan Auzmendi.

Fotokonposizio eta maketazioa:

Goierritarra

Inprimaketa: Gertu (Zubillaga 9. Oñati)

Tirada: 7.000 ale

SSN: 1132-0907


Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen
derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen
eta iritzien erantzukizunik.



Eusko Jaularitzako
Kultura Sailak,
Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta
GOIERRIKO UDALEK
diruz lagundutako
aldizkaria



Aralarko larreen irekiera Larraitzen, maiatzaren 1ean *Juan Inazio Begiristain omenduko dute*

Azken urteetako ohiturari eutsiz, datorren maiatzaren 1ean Aralarko larreak irekitzeko festa ospatuko da Larraitzen, Enirio Aralar Mankomunitateak antolatuta. Iazko azarotik hona ganadua beheran aritu da bazkatzen, negua babesean pasa eta goiko larreei atsedean pixka bat ematearren. Maiatzaren 1etik aurrera Aralar behor, behi eta ardiz betetzen hasiko da.

Goizeko 10etan hasiko da festa Tolosako gaiteroen doinu alaiekin. 11:00etan larreak irekitzeko etxafuegoa botako dute eta amezketarrez eta abaltzisketarrez osaturiko Arkupe dantza taldeak hainbat dantza eskainiko ditu. 11:30ean, berriz, ahuntz eta bigantxak zakurrekin menderatzeko erakustaldia egongo da. Jarraian Juan Inazio Begiristain zenaren omenezko oroigarria eskainiko diote haren sen-

diari. Ondoren, giroa alaitze aldera, Gorostidi eta Munduate bertsolariak ariko dira kantari, eta txiste kontalariarekin barrre egiteko aukera egongo da. Aimar Irigoien harrijasotzailearen erakustaldiak jarraituko die. Ondoren, Tolosako gaiteroak ariko dira jo eta jo.

Erakusketak, artisauak eta azoka

Horrez gain, ardi, behi eta behor erakusketak zabalduko dute Larraitzeko aparkalekuan. Eskulangintza saioak ere izango dira: gaztagileak, artilegileak, saskigileak, abarkagileak, pilotagileak, erlezainak eta beste hainbat artisau. Bertako produktuak erosteko aukera ere izango da: ardi eta ahuntz gazta, taloa, orein jakiak, ezti, sagardoa, sendabelarrak... Aralarko liburu eta mapak ere salgai izango dira.

Goierritarra Goierriz kanpo jaso nahi dutenenentzat, posta gastuak ordaintzeko tarifak:

Hego Euskal Herria eta Espainia:	urtean 12 euro
Ipar Euskal Herria eta Europa:	urtean 24 euro
Europaz kanpo:	urtean 36 euro

UGTeko egoitzari eraso

Beasainek UGT sindikatuak duen egoitzari eraso egin zioten zenbait ezezagunek, apirilaren lehenengo asteburuan.

Elkarri: Bake Konferentzia berriaren proposamenaren aurkezpena

Apirilaren 10ean Beasaingo Udaletxean aurkeztu zuen Elkarri Bake Konferentzia berriaren proposamena. "Elkarri 2004ko Hauteskunde Orokorren ondoren Bake Konferentzia berri bat prestatzea erabaki du, elkarriketarik gabe konponbiderik ez dagoelako. Ez dago konponbiderik ez dagoelako. Ez dago konponbiderik indarkeriarekin. Ez dago konponbiderik gizartearen zati bat bizikidetasunetik kanporatuz. Beharrazkoa da adostasunen bila lanean jarraitzea", dio Elkarri.

Egoera honetan, Elkarri prest legoke Bake Konferentzia abiarazteko, 10.000tik gora lagun egitasmo hau laguntzeko prest agertzen badira.

Euskal udalen arteko senidetzea bultzatuko du Udalbiltzak

'Hurbiltzen' programaren bidez, euskal udalen arteko senidetzeak bultzatzeko asmoa dauka EAJ eta EAK kudeatzen duen Udalbiltzak. Goierriko udalen kasuan, Ataun, Lapurdiko Sara herriarekin senidetuko da eta Beasain, Ordizia eta Lazkao udalak, Bizkaiko Getxorekin.

Greba metalgintzan

Lan Hitzarmenerako negoziazioak blokeaturik daudela eta, Goierriko hainbat enpresek greba egin zuten martxoaren 24an eta 31n eta apirilaren 10ean eta 11n.



Arg.: Dioni Santoyo.

Harrera beroa Korrikari

Apirilaren 6an iritsi zen, gauez, Korrika 13 Goierri. Goierritarrek harrera beroa egin zioten Korrikari eta chunka goierritar izan ziren euskararen aldeko pausoak ematen.

Egunero-ren aldeko laguntza bonoak salgai


Goierriko Egunkariaren Aldeko Herri Batzordeek jarraitzen dute Egunero egunkari berriaren aldeko ekimenekin. Azkeneko berrikuntza, laguntza bonoena da. 50 eta 300 euroko bonoak salgai daude. Egunero egunkariaren harpide egitea ere, Egunero laguntzeko beste modu bat da. Azkenik, aipatu, asteazkenero, Ordiziako azokan, materiala salgai izango dela. Gainerako herrietan ere zabalduko da materiala.

Xabier Mendigurenen azken liburua

Azken urteetako ibilbideari jarraituz, fikzioa eta oroitzapena nahasten dituen obra idatzi du Xabier Mendiguren Elizegi beasaindarrak: 'Uda betiko balitz'. Udalekuen girora eramango gaitu batetik, eta trantsizio politiko garaira, bestetik, hainbat neraberen eskutik.

MG UAR

Argiztapenak



Euskal Pilota, 4 eta 5

☎ eta faxa: 943 88 86 88

☎ mugikorrak: 619 46 22 65

eta 619 46 22 68

ORDIZIA

KEMEN KIROLAK



Zumalakarregi, 1

☎ 943 88 51 68

ORMAIZTEGI

OBRA PROIEKTUAK

Etxe berriak eraikitzeko
Birmoldaketak
Aktibitateak
Hirigintza

LDA arkitektura 649 95 94 14
GOIERI ETA TOLOSALDEAN

YARZABAL, S.L.

Zurgindegi mekanikoa

AURREKONTUAK KONPROMEZURIK GABE

Isuses industrialdea - ARAMA

Tfnoa. eta Faxa: 943 88 90 17

**ATEAK
LEIHOAK
ESKAILERAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK
OBRAK
ERREFORMAK**

Loinatz abesbatza saritua

Beasaingo Loinatz abesbatzak bigarren saria lortu zuen Alikanteko Novelda herriko III. Musika Erljiosio lehiaketan.

Txirrin Txarran festa Beasainen

Apirilaren 6an, Beasainen, Txirrin Txarran festa ospatu zuten, Gipuzkoako eliz parroketako aisi taldeek, Txilibutxof Beasaingo aisi taldeak antolatutik.

Auzolandegiak eta hizkuntza ikastaroak

Udari begira, Eusko Jaurlaritzak auzolandegiak eta atzerriko hizkuntza ikastaroak antolatu ditu. Ordiziako Gazte Informazio bulegoan daude aukerak, oinarriak eta baldintzak. Harremanetarako telefono zenbakia: 943 805634.

Santiago Bidea bulegoa

Gipuzkoako Santiago Bidelagunen Elkartek bulegoa du Beasainen, erromes joan nahi dutenei laguntza eta argibideak eskaintzeko. Elkartek ostegunetan eskaintzen du zerbitzu hau 19:00etatik 21:00etara Igartzako Belen Ermitan. Santiago Bidea egiteko informazioa emango da aipaturiko lekuan eta gainera, gaiari buruzko hainbat argitalpen eskuratu ditzake bertaratzen denak.

Xabier Imaz, kanporatua

Buruz buruko pilota txapelketatik kanpo gelditu da Xabier Imaz segurarra, Aimar Olaizolaren aurka 22-5 galdu ondoren.



Josu Sarriegi

Alaveseko lehen taldean

Lazkaoko futbolaria Alaves futbol taldea arituko da datorren ekainaren 30etik aurrera. Beraz, Alaveseko lehen taldearekin jokatzeko aukera izango du berriro.

Beasaingo Musika Eskolako erakusketa

Beasaingo Musika Eskolak aurten 25. urteurrena ospatuko duela eta ekitaldi desberdinak antolatu dituzte, eta horien artean kokatu behar dugu maiatzerako antolatu duten erakusketa. Honetarako ordea herritarren laguntza behar dute. Beraz, azken 25 urte hauetako Musika Eskolaren inguruko argazkirik baduzue eskertuko dizue lehenbait lehen zuen argazki horiek erakusketa hau antolatzeko prestatzen badiuzue.



SASIETA MANKOMUNITATEA

www.sasieta.net Martina Maiz, 3 behea - BEASAIN - Tel.: 943 16 15 55



AUSO EGI

Urdaneta, 41

©-Faxa: 943 88 95 76

ORDIZIA

- ✖ Tximini eta egurrezko ekonomikak
- ✖ Berogailuak
- ✖ Iturgintza
- ✖ Zeramika erakusketa
- ✖ Bainuko altzariak
- ✖ Erreforma osoak



Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



kutxa
zuri esker

gizarte ekintza

Ataunen txabola turistikoak ez, baino babes ofizialeko etxeak behar ditugu

Eusko Jaurlaritzako Bioaniztasunaren zuzendaritzak begi onez ikusten omen du Lareo inguruan txabola turistikoak egiteko Ataungo Udalak duen egitasmoa. Hala ere, hasera batean Ataungo Udalaren asmoen arabera, proiektu honetan txabola turistikoez gain jateketa eta zenbait kirol azpiegitura egin nahi ziren. Orain Bioaniztasun zuzendaritzak gehienez 25 txabola turistiko egitea onartzen omen du beste gainontzekoa (jateketa, igerilekua...) atzera botatz.

Esan Ataungo Udalak proiektu hau aurrera eramateko asmoa agertu zuen momentutik herritar kopuru oso inportante bat beronen aurka agertu garena, erabat babestua egon den naturagunea (Lareoko ingurunea ere Aralarko parke naturalean sartzen da) aisialdiko gune bezala izendatu dutelako, bertan ditoxozko txabola horiek egitea ahalbideratuz. Ez dago esan beharrik gure kezkak oinarri sendoak dituztela, Arantzadi Zientzia Elkarteko adituek horrelako proiektu batek Lareo bezalako ingurune aberats eta aldi berean delikatu batean izango lituzkeen ondorio larriak argi eta garbi jarri ziztuzten hain zuzen ere.

Udal agintariek, honela herrira turismoa erakarri eta izugarritzko onura ekonomikoa sortuko dutela esaten ari dira lau haizetara. Bitartean Ataunen geroz eta biztanle gutxiago bizi gara (1513 gutxi gora behera) eta Udal gobernuaren jardura dela eta inbertsiorik garrantzitsuenak San Martinera, auzo jendetsuenera zuzentzen dira. Beste bi auzoak, San Gregorio eta Aia, are eta abiadura handiagoan husten ari dira. Bero-

nen arrazoi nagusienetarikoa bat aipaturiko bi auzoetan dagoen etxebizitza eskasia da.

Beraz, Ataungo Udalak hobe luke Lareoko txabola turistikoen proiektua betirako alde batera utzi eta San Gregorion nahiz Aian babes ofizialeko etxebizitzak egiteko Eusko Jaurlaritzarekin akordioa lortzea. Ea hemendik aurrera, Ataungo Udalak Eusko Jaurlaritzako etxebizitza sailarekin dituen bilerak eta akordioak diren berri. Bada garaia, has gaitezen lanean.

Asier Auzmendi Arrue

Idiazabalgo Udalari edota dagokionari

Goierritarrok, eta baita inguruetan bizi direnek ere, jakin badakigu Iurretik Mutilorantz joateko Idiazabaldik igaro behar dela. Norabide honetan goazela hiru errotonda ditugu. Lehendabiziko errotondan, lehenagoko 'Karrotegi' ondoan ezarrita dauden zirkulazio adierazleetan, gasolindegia baino pittin bat lehenetxeago beste errotonda bat dago. Ezkerretara Idiazabal dagoela adierazten da eta eskuinetara Segura, Zerain eta Zegama. Adierazle hauetan agertzen ez den herri bakarra Mutiloa da.

Goierritarrok ez dugu inongo arazorik bizi osoan ezagutu izan ditugun errepide hauetan ibiltzeko, baina uste dut kanpotik datozei erraztasunak eman behar zaizkietela. Bestalde, eta Mutiloa herri txikia dela jakin arren, zirkulazio adierazle hauetan ez dela agertzen ikusteak ezinegon sortarazi dit. Nire ustez, gure herri txiki honek ere aipamena merezi du. Badakit arazo larria ez dela, baina horrexegatik hain zuzen, konponbide erraza duelako, gutun honen bidez Mutiloa ere

adierazle horietan ager dezazuen eskatu nahi dut. Beste-rik gabe eta eskakizun honek harrera ona izango duelakoa, aldeztu aurretik eskerrak emanez agurtzen zaituztet.

Rosario Imaz (Mutiloa)

92. artikulua orain!

Oraingo hauek garai gogorak ditugu Euskal Herriarentzat. Oraingo hauek garai gogorak ditugu euskaldunontzat. Garai gogorak euskal identitateari ukorik egiten ez dionarentzat. Garai gogorak duintasuna zer den eta duintasunez jokatzeko zer den dakienarentzat. Garai gogorak egiarentzat, justiziarentzat eta demokraziarentzat. Eta, batez ere, garai gogorak gaixotasun sendaezina duten euskal preso politikoez.

Orain arte Barandalla preso etxarriarra izan dugu denon ahotan. Orain arte hamai-ka lekutan jo dugu atea, hamai-ka modu ezberdinez eskatu dugu bere askatasuna, hamai-ka bider oihukatu dugu "92. artikulua orain!". Orain Koldo Kareaga preso debarrak ere gaixotasun larri eta sendaezina duela jakin dugu. Orain 22 urte herritik bahitu zutenean osasun bikaina zuen, sasoi paregabea. Herriari, ordea, ez diote egoera berdinean itzuliko. Ezta gutxiagorik ere!

Beste behin ere, Bautistarekin gertatu bezela, osasun asistentzia eza salatu beharra dago. Osasun asistentzia eza eta euskal herritar oro sunsitzeko Espainiako estatuak martxan duen tresneria osoa. Gurekin bukatu arte ez dute atsedetik hartuko.

Gu ere, ordea, ez gaude atsedetik hartzeko asmoz. Ez garai hauetan. Barandalla eta Kareaga kaleratzea lortuko dugu. Zuek kalean, gu espetxean, 92. artikulua aplikatu diezaieten borrokatuko gara.

Ezinbestekoa da euskal herritar guztion partehartzea.

Hemendik, Alkalako espetxetik, dei bakarra luzatzen dizuegu: borrokatu euskal herritar ororen eskubideak bermatuak izan daitezten. Ez dadin inon inor zapaldua egon. Zuen esku, gure esku dago Barandalla eta Kareagaren bizitza, Euskal Herriaren bizitza. Eskatu 92. artikulua aplikazioa. Gu hemen gure aukeren arabera borrokan ari gara. Zuek ere, zuen aukeren arabera, borroka zaitzeten soilik eskatzen dugu. Guztiok egin dezakegu zerbait. Guztiok gara etorkizunean gerta litekeenaren erantzule.

Zuei, Bautista, Koldo, zer esango dizuegu ba, jadanik ez dakizuenik. Eusteko goiari. Ez etsitzeko. Zuekin gaudela eta egongo garena beti. Harro sentitzen garena zuek bezelako pertsonen ondoan borrokatzeagatik, eta ortzimuga den horretan garaipenaren eguna guztiok elkarrekin dastatuko dugula. Bai horixe!

Jaso besarkada bero bana eta gurdikada muxu goxo, maitasunez.

Oharra: gutun hau guregana iritsi zenean Koldo Kareaga espetxe zegoen oraindik. Gaur egun aske dago.

Alkalako euskal preso politikoen (tartean Oskarbi Jauregi zaldibitarra eta Ainhoa Irastorza ordiziarra)

Zuzenketa

GOIERRITARRA aldizkariak 238. alean akats bat egin zuen lan bertikalari buruzko elkarriketan. Han, Lanber enpresa orain dela urte eta erdi Fernando Lertxundik sortu zuela agertzen genuen, baina Lanber enpresa orain dela sei urte sortu zuten bi bazkidek. Egun, Lertxundi C.B. da Lertxundiren enpresa. Barkatu eragozpenak.

Lurra berotzen (II)

Zer egin?

Aurreko aleko idazkian nioenez, Lur planeta berotzen hasia da atmosferaren gas konposaketa aldatzen ari delako zenbait giza jardueren ondorioz. Baina, zein jarduera dira bada horiek?

Etxebizitzetan kontsumitzen den energiaren %80-90 ikatz, petrolio eta gas naturalaren errekuntzaren ondorioz lortzen da. Horrelako errekuntzetan berotegi-gasak (Lurra berotzen laguntzen duten gasak) sortzen dira. Sarritan esan ohi da elektrizitatea energia "garbia" dela, baina hori ez da gehien-gehienetan egia. Egia da elektrizitatea ekoizteko haizea eta eguzkia erabiltzen diren kasuan, baina gezur galanta petrolio, gas naturala edo ikatza erabiltzen direnean. Izan ere, erregai horiek erabiliz elektrizitatea produzitzen den ingurua ezin esan garbia denik.

Etxeetan erabiltzen dugun energiaren %11 bainugelako ura berotzen erabiltzen da, beste horrenbeste sukaldeko harraskako ura berotzen, %8 janaria prestatzen, %5 garbigailuan, %6 hozkailuan, %46 etxea girotzen, %8 argiztapenean eta beste horrenbeste bestelako etxetresna elektrikoetan. Erabilpen hauetako kontsumoak murriztuko begenitu, berotegi-gasen ekoizpena gutxituko genuke. Adibidez, etxetresna elektrikoaren 'stand-by' funtzioa (urruneko aginteari erantzun ahal izateko mekanismoa) ez erabiliz etxeko kontsumoa %5ean gutxitu dezakegu. Berogailu bidez etxea berotzen dugun gradu bakoitzeko energia kontsumoa %7 igotzen da. Hozkailuaren barrena gradu bat hozteko energia gastua %5 igotzen denez, ez utzi atea zabalik eta ez sartu janari bero edo epelik. Ura gutxiago berotuta ere aurreztu dezakegu energia eta dirua, galdarako ura nahikoa izaten da 60 gradutan edukitzea. Arropa eta baxera-garbigailuak erabat beteta erabili. Kontsumo txikiko lanparak jarri. Nahiz eta garestiagoak izan, bost aldiz gutxiago kontsumitu eta hamar aldiz gehiago irauten baitute, horrela elektrizitatearen kontua sei euro merketzea lor dezakegu.

Lurraren berokuntzari aurre egiteko beste modu bat, produktuak eta zerbitzuak erosterakoan horien ekologikotasuna kon-

tuan hartzea da. Adibidez, barazki mota berbera baino jatorri desberdinekoak ditugunean aukeran erosteko, gertuen produzitutakoa erosten badugu berotegi-gasak murrizteko bideak irekitzen laguntzen ari gara. Mugikortasunari dagokionez, berriz, kotxe pribatua ahalik eta gutxien erabiltzeko ohiturak hartu behar ditugu. Esaterako, 2 km baino ibilbide txikiagoak oinez egin daitezke. Bizikletaz, berriz, kilometro gehiago ere egin daitezke. Autobusa eta trena erabili.

Irakurleak galdetuko du ea herritarrentzat luzatutako aholkuetatik gain gobernuak ez duen gai honetan ezer egitekorik. Jakina denez, Europako Batasunak iaz berronetsi zuen Kyotoko Protokoloa. Horrek 2010eko berotegi-gasen emisioak 1990eko mailakoa %8 jeistera behartzen du Europa. Baina Europa Batasuneko hainbat herrialdetako gas horien emisioak per capita kontuan hartuta Espainia zenez azken aurreko herrialdea zerrendan, bere emisioak %15ean gehitzeko eskubidea eman zitzaion. Espainiak 2000.urtean 1990eko maila %34ean gainditu zuen, Euskadik, berriz, %25ean.

Martxan jarri berri den Euskadiko Garapen Jasangarriaren Ingurumen Estrategiak (2002-2020) helburu eta konpromiso txalogarriak jasotzen ditu arazo honi erantzuteko. Baina horiek oraingoz asmoak besterik ez dira. Zein da momentu honetako errealtatea? Bada, Euskadik ez duela energia garbiena aldeko apustu irmo bat egin momentuz (aldiz, Nafarroan jada kontsumitzen duten energiaren %31 iturri berriztagarrietatik lortutakoa da) eta gainera Eusko Jaurlaritzak berotegi-gas gehiago sortuko duten hiru zentral elektriko berri eraiki nahi dituela Zornotza, Santurtzi eta Abantón. Eta Gipuzkora etorritik, Foru Aldundiak, Zaborren Kudeaketarako Planaren arabera, elektrizitatea produzituko duten hondakin-errauskailuak eraikiko ditu, baina horietan zaborrak erretzeaz gain gas naturala ere erreko da elektrizitatea produzitzeko, eta noski, berotegi-gas gehiago sortuko da.

Oro har, ingurugiroari dagokionez, ezin esan gauzak ongi egiten ari direnik.

Joxan Auzmendi

LIBURUA

✓ **Badirudi udaberria geldo geldo datorkigula...** baina badator. Batetik, enarak iritsi zaizkigu, bestetik sagarrondoaren lore botoiak beren gorria agertzen hasi dira eta erleak txikori belarretako zukua eta polen hori bizia biltzen dabilta, arantzabeltzaren loreekin konbinaketan.

✓ Gure konifero basoetan arrunt eta sarri ikusten ditugun **erregetxo bekain zurriak**, Europako txoririk txikiak dugu. Txikia eta txit ederra, bere goiko aldeko marra hori urrearekin buru gainea. Marra ikusgarri hau altxor moduan dago izkutua eta haizeak bortitza astintzen duenean azalera-tzen ditu.

✓ Horren gogoko ditugun **Oria ibaiko ahateak** hor badaude, berez behar dutena badutelako da. Mese-dez, ez dezagun erreketan betetzen duten funtzioa aldatu, herenegungo ogiak txiki txiki edo osorik uretara botatz. Azken honekin erre-kak kutsatzeaz gain, arratoien ugaltzea ahalbideratzen baitugu. Ondorioz, ahateak egiten dituzten arrautzak harrapatzen dituzte. Sen kaxkarrekin sortu eta bizi irauten duten ahate hauek ez ditzagun gizarte-ratu, ez tontotu...

✓ Itsas Enara ornitologi el-karteak, Eusko jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro sailaren laguntzaz, **Hegaztiak Behatzen liburuxka** argitaratu zuen 2002ko Irailean. Bertan duzue Ornitologiara gerturatzeko eskuliburu bikaina. Gipuzkoa eta inguruetan hegaztiak ikusi eta behategi zein punturik interesgarrienak aipatu eta komentatzen dira.

Landar Lan taldeak egindako orrialdea

Taldean parte hartu edo gairen bat aportatu nahi baduzu: ☎ 943 16 12 44



Pello Barandiaran

Gertu Aholkularitza

2002ko errenta aitorpenaren kanpaina

batera hartuta, urtean 1.535 euro baino gutxiago lortu izana.

Nahiz eta aurreko bi baldintza hauek bete, 7.360 eta 18.400 euro bitarteko lan etekinak izan eta ondorengo egoeratako batean dagoenak, errenta aitorpena aurkeztu beharko du:

- 1.- Ordaintzaile bat baino gehiago izan dituenak.
 - 2.- Kontratu bat baino gehiago sinatu dituenak.
 - 3.- Pentsio konpentsagarriak jaso dituenak.
 - 4.- Atxikipenak kanpoko araudiaren arabera kalkulatu zaizkionak.
 - 5.- Egunsariak jaso dituenak.
 - 6.- Ordainsari aldakorrek atxikipen portzentaia kalkulatzeko kontuan hartutakoak baino handiagoak direnean.
- Egoera honetan daudenak bi aukera dituzte:
- X Aitorpen orokorra egitea.
 - X Aukerako aitorpena egitea, hau da, lan etekinak bakarrik kontuan hartuaz.

Nahiz eta aitorpena egitera beharturik ez egon, atxiki edo norberaren kontura sartu diren kantitateak berreskuratu nahi dituen zergadun orok aurkeztu dezakete aitorpena.

Zein dira 2002 ekitaldian eman diren aldaketa nagusienak?

● Kapital higiezinaren etekinak (ohiko etxezizta kanpo): **2001 urtean:** balio katastralaren %2a. **2002 urtean:** balio katastralaren %0,2a.

● Murrizpenak, mutualitate, pentsio plan eta BGA/EPSTV-etara egindako ekarpenagatik.

Orain arte muga bakarra zegoen enpresen ekarpenetarako eta zergadunenentarako.

2002. urtean banakako mugak ezarri dira, orokorrean honako hauek direlarik:

- X Enpresa ekarpenak: 7.212,15 euro.
- X Zergadunaren ekarpenak: 7.212,15 euro.

Muga bereziak daude 52 urtetik gorakoek eginiko ekarpenentzako, ezkontidea-

ren alde egindakoentzako, elbarrien alde egindakoentzako, eta kirolari profesional eta goi mailakoek egindako ekarpenentzako.

Errenta aitorpen bateratua egiteagatik, 2002. urtean murrizpena 3.150 eurotara igo da.

● Kenkariak:

2001. urtean zeudenak mantentzen dira kopurua igoz:

- X Seme-alabengatik.
 - X Seme-alaben urteko mantenua ordaintzeagatik.
 - X Gurasoekin elkarbizitzeagatik.
 - X Elbarritasunagatik.
 - X 65 urteko edo gehiagoko pertsona ezindua norbere kargu izateagatik, honek, besteen laguntza behar duenean edo mugikortsun murriztua duenean.
- 2002ko ekitaldirako, kenkari berri bat arautzen da: etxebizitza errentan emateagatik jasotako etekin garbiaren %20koa. Muga, 900 eurokoa izango da.

2002ko Errenta Aitorpena egiteko epea apirilaren 7an ireki zen, eta ekainaren 25a bitarte luzatuko da.

Nork aurkeztu behar du 2002. urtean aitorpena?

Orokorrean, zergari atxikita dauden errentak jaso dituen pertsonak: lan eta kapital etekinak eta ondare irabazi eta galerak lortu dituzten zergadunak.

Aurkeztu ez da derri-gorrezkoa izango bi baldintza hauek betetzen badira:

- 1.- 18.400 euro gordineko soldataren azpitik egotea.
- 2.- Kapital higiezin eta higikorretatik sorturiko etekinak eta ondare irabaziak

VOLVO

TOYOTA



ŠKODA

Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

**Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea**

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a
☎ 943 88 17 00 - 943 88 17 04
BEASAIN

LOINATZ

**Taberna
Jatetxea**

Bazkari, afari,
ogitarateko, pintxoak

☎ 943 88 20 07

Nagusia, 27

BEASAIN



SILVIA MIRAS CASASAYAS
ODONTOLOGA



TEL./FAX: 943 88 92 87
SAN INAZIO KALEA, 2
20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)

Goierritarra etxean jasotzeko laguntzaile txartela

Txartel hau betetzen duenean urtean 12 euro kobratuko zuzenke posta gaitzak ordaintzeko

Izen-abizenak:

Helbidea:

Herria: Tfnoa.: NAN:

Kontu zenbakia (20 digitu):

Bidali txartel hau helbide honetara: **Goierritarra, 124 Posta Kutxa, Ordizia**

**KEMEN ZENTRUan osasuna zaintzeaz gain,
zure kirol errendimendua hobetzen dugu.**

San Prudentzio
jai zoiontsuak
denoi

Mediku azterketak eta
esfortzu frogak

Argaltze dietak,
kirol dietak
eta aholkuak

Entrenamendu egokituak

Masajeak eta
manipulazioak



Kemen

kirol osasun zerbitzuak

Elozegi, 14 - 1. ezk
LAZKAO

Tel.: 943 16 22 26
Faxa: 943 16 22 27



RENAULT

LAZKAO

Garajea

Senpere Industrialdea

☎ 943 882 442 - 943 888 901

Faxa: 943 888 901

LAZKAO



ITURGINTZA - KALEFAZIOA - GASA
BAINU ETA SUKALDEKO INSTALAKUNTZAK
ETXEBIZITZEKO AIRE EGOKITUAK
BERRIKUNTZA LANAK
GREMIO GUZTIEN ARDURA



SUKALDEKO ETA
BAINUKO ALTZARIAK




BULEGOAK-LANTEGIA
USABAL, 11-A
TOLOSA
Tel.: 943 672 620

POLIURETANOZKO LEIHOAK



ERAKUSKETAK:
SAN FRANTZISKO, 10
TOLOSA
Tel.: 943 653 307



LAZKAOKO UDALA

AGURRA

1.- Herriko jaien kontura
Bihotzez nire agurra
San Prudentzio badator eta
urtero ohitura
Hautsiz lanaren lotura
haserrearen itxitura,
goza dezagun festa giroan
lagunen modura.

2.- Txaranga eta berbena,
Prozesioa hurrena,
Txirrindulari ta danborrada
kalean barrena,
umeentzat gozamina,
Bakailaorik onena,
ur tantaren bat ere Patroiak
ekar dezakena.

3.- Aurten utzi gaituztenak
Etxetik urrun direnak
Egitarau hau osatu asmoz
iardun zaretenak
gogoan zaiteuten denak
Nire esker beroenak
Festa usainak goza ditzala
guztion barrenak.

4.- Apirilaren harira
maiatz aldera begira
aste beteko festa aldiak
dakarren dizdira
zabaldu urte guztira
ondo pasatzeko dira,
eta maiatzak hiru eta lau
Lazkaomendira.

*Gora Lazkao,
Gora San Prudentzio jaiak!*



Felix Urkola
Alkatea

Erlojua digitala ala analogikoa?

- Dударik gabe analogikoa.

- Erlojua puntuan ala minutu batzuk aurreratuta?

- Beti puntuan.

- Iratzargailuak behin jotakoan jaikitzen al zara?

- Bai.

- Maite duzula esateko bitxi bat:

- Beti diamantea.

- Jaunartzetan gehien oparitzen den oparia?

- Katea txapa edo medailarekin eta identitate eskumuturrekoa.

- Gabonetan?

- Eraztunak, belarritakoak eta erlojuak.

- San Balentin egunean?

- Badira egun horretarako bitxi aproposak. Normalean zintzilikarioak dira.

- Urrea ala zilarra?

- Gaur egun zilarra 'moda' rengatik saltzen da. Baina, bitxi on bat beti urrezkoa izango da.

- Bitxiak emakumezkoentzat bakarrik?

- Ez. Pixkanaka gizonezkoentzat bitxi gehiago ari dira diseinatzen.

- Beti amestu izan dazun bitxi bat:

- Diamante beltza.

- Festak, etxean dauzkagun bitxiak erakusteko egun egokiak al dira?

- Bai, baina badaude edozein momentu edo aukeratarako bitxiak.

- Festetarako plan bat:

- Familiarekin eta lagunekin disfrutatzea.

- Zein duzu festetako egunik gustokoena?

- Koadrilen eguna.

- Edari bat:

- Bero egiten duenean sagardo freskoa.

- Janari bat:

- Arkume errea.

- Amets bat:

- Errealak liga irabaztea.



Jon Negueruela

(Negueruela erlojudenda bitxidenda)


GOIERRIKO ZURAK

Inportazioko egur biltegia
Ohol, aglomeratuak, e. a.

Hiribarren, z/g

☎ 943 88 80 23

LAZKAO



**Abokatuak
Enpresen
asesoria eta
gestioa**

e txekin

www.txekin.net

Etxebizitzaren salmenta:
Legorreta
Beasain
Orendain

Tel/Faxa: 943 162 393 e.posta: zuzenki@euskalnet.net Elosegi, 16 LAZKAO

**UNTXUNDEI
garajea**

**OSINALDE
karrozategia**

☎ 943 88 28 21

☎ 943 16 07 06

ORMAIZTEGI



**Etxe - Zuri
Sagardotegia**

Etxe-Zuri baserria

☎ 943 88 20 49

OLABERRIA

Sagardoa txotxetik urte guztian
Sagardo denboralditik kanpo ere irekita
Bataio, jaunartze, lagunarteko otordu, despedida, e. a.



ZUREMOTO, C. B.
GAS GAS banatzaile ofiziala

Hiribarren Atze Poligonoa, 1

☎ 943 88 39 03 LAZKAO

San Prudentzio jaiak Lazkaon

Apirilak 25, ostirala:

16:00etan: Xakea haurren-tzat Plazan.

17:00etan: Barraken inaugurazioa.

19:00etan: Herriko jaietako hasiera emateko Udaletxetik suziria botako da. Ondoren Ordiziako erraldoi eta Antzar Gazteak txarangaren irteera.

22:30ean: Bigarren mailako eskuz banakako txapelketako partidua. Esku pilotako partidu profesionala: Titin III - Goñi III / Agirre-Lasa III.

23:00etan: Egan, plazan

Apirilak 26, larunbata:

09:00etan: Barazki azoka

10:00etan: Jubilatuen ibilaldi neurtua.

11:00etan: Euskadiko txapelketako Areto Formulako Rallia.

12:00etan: Haur jokoak.



12:00etan: Antzar Gazteak txaranga herrian zehar.

16:00etan: Herriko haurren pelota erakustaldia.

16:30ean: Euskadiko txapelketako Areto Formulako Rallia.

18:00etan: Dantza jaialdia: Lesakako 'Tantirumairu', Ormaiztegi-Gabiriko 'Goruntz' eta Lazkaoko 'Oin Arin'.

20:00etan: Mozorrotuen elkarketa, Txatunga Benbe perkusio taldearekin.

23:00etan: Drindots.

Apirilak 27, igandea:

10:30ean: Lazkaoko LX Txirrindulari proba.

12:00etan: Potxin eta Patxin pailazoen emanaldia.

12:30ean: Trikuak txaranga.

12:45ean: San Benito ikastolako haur eta helduen kontzertua, San Migel parrokiaren.

18:00etan: Bezpera elizkizunak Prudentzio Deunaren ermitan.

18:30ean: Lazkaoko ikasleen danborrada. Irteera San Prudentzio auzotik eta amaiera plazan.

20:00etan: Trikuak txaranga.

22:30ean: Paco Formoso eta bere mariatxiak. Ondoren Orkestra Pasarelaren emanaldia Plazan.

Apirilak 28, astelehena:

09:00etan: Antzar Gazteak txistularien goizeresia.

10:00etan: Artisanen azoka.

10:30ean: Prozesioa San Prudentzio ermitara txistulari eta dantzariekin.

11:00etan: Prudentzio Deunaren ermitan Meza Nagusia. Ondoren Oin Arinekoek mutil dantza dantzatuko diote Udal Korporazioari..

13:00etan: Instrumentu autoktonoen erakustaldia.

16:00etan: Gorriti bere abereekin.

17:30ean: 'Oin Arin' dantza taldearen emanaldia.

MIKEL OPTIKA
OPTIKARI
OPTOMETRISTA
DIPLOMADUNA
UKIPEN LENTEEN
EGOKIERA
Hirigoi, 7
943 88 09 35
LAZKAO

Urna ZORU KONPONKETAK
Dendan opari artikulua eta
altzari osagarriak
943 88 17 45 943 16 20 98 615 79 79 67
Erakusketa: Hirigoi, 36 LAZKAO

Garin OKINDEGIA
Hirigoi, 14 Pl. Nagusia, 5
943 16 23 36 943 88 04 33
LAZKAO ORDIZIA

ANDERE USAINDEGIA
- Depilazioak
- Solarium-a
Gurutze, 3
943 88 30 02 LAZKAO

OSAKI
* Sendabelarrak
* Naturopata
* Masajista
Ana Mari Egea
Mikela, 1 943 88 93 62 LAZKAO

ILEAPAINDEGIA Ormazi
Jai zoriontsuak denoi
Hirigoi, 12 943 88 92 41
LAZKAO

GASTEIZ ILEAPAINDEGIA
Festa onak pasa!!!
Hirigoi, 24
94388 05 83 LAZKAO

ITXURRENE TABERNA
Bazkariak
Jaunartzeak
Bataioak...
943 885759 LAZKAOMENDI

PELLO BIDE GAIN HARATEGIAK
Jai zoriontsuak opa dizkizue
943 88 93 57
Mikela, 1 LAZKAO

18:30etan: Herri Kirolak: Aimar Irigoien gaztea, Iñaki eta Inazio Perurena harrijasotzailerak eta Nazabal, Arrospide, Barberena eta Mugerza aizkolariak.

22:00etan: Briganthya.

Apirilak 29, asteartea:

11:00etan: Haurrentzako parkea.

12:00: Street basket Ikastola-jolastokian.

18:00etan: Play Back plazan.

19:30etan: XIV. Sardina jana plazan.

19:30etan: Buruhandiak, Antzar Gazteak txistulariekin.

20:00etan: Luhartz.

Apirilak 30, asteazkena:

12:30etan: Koadrilen bilkura, Incansables txarangak alaituta.

13:00etan: Koadrilen arteko herri-kirol topaketa.

17:00etan: Karate erakustaldia Kiroldegian.

17:30etan: Azkona taldeko pailazoen emanaldia.

18:00etan: Koadrilen kalejira Incansables txarangarekin.

18:30etan: Moto zerraz egindako egurrezko irudiak.

20:30etan: Drindots.

23:00etan: Goma saltoa San Jose auzoan.

Maiatzak 1, osteguna:

10:30etan: Eskualdeko XI. Igeri-lehiaketa, Kiroldegian.

11:30etan: Baso majikoa, dantza eta joku animazioa.

12:00etan: XV. Bakailao lehiaketa.

12:30etan: Aldatz Gora fanfarearen emanaldia.

16:00etan: Toka lehiaketa plazan.

18:00etan: XXIII. Dantza libreko txapelketa plazan.

Lazkaomendiko jaiak

Maiatzak 3, larunbata:

16:00etan: XXVII Lazkaomendiko Txirrindulari proba.

16:30etan: Haur antzerkia: Iratxoena magia.

21:00etan: Auzo afaria.

23:00etan: Etxabe anaiei trikitixa emanaldia.

Maiatzak 4, igandea:

11:00etan: Meza Nagusia, San Juan Ante Portam Latinan ermitan. Udal Korporazioa bertan izango da.

12:00etan: Haur jokuak.

13:00etan: Mañukorta eta Zeberio bertsolarien saioa, eta txiste saioa. Ondoren Ansorregi eta Larrañagaren trikitixa saioa.

17:15etan: Herri Kirolak: Aizkolariak: Ugaitz eta Aratz, Mingegia eta Larretxearen aurka; Harrijasotzailea: Iñaki Perurena; eta asto karrera.

18:30etan: Bertsolarien eta txiste kontalarien bigarren saioa.

19:00etan: Ansorregi eta Larrañaga trikitilariak.

19:00etan: Aldatz gora fanfarearen herrian zehar.

23:00etan: Golden Apple Quartet taldea, plazan.

Maiatzak 2, ostirala:

22:30etan: Euskadi Gaztearen Disko festa Joseina Etxeberriarekin, Lazkaoko tabernarietara antolatuta.

AMAREN EGUNEAN,
MAIATZAK 4,
GOIZEAN ZABALIK

EGVZKI-LORE

Jai zoriontsuak!

943 88 49 65

Jose Lasa, 9 LAZKAO

UNAI

ARRANDEGIA

Ondo ibili festetan!

Gurutze, 4
LAZKAO

943 88 79 33

OSKARBI ARROPA GARBITEGIA

Arropa industrial mota guztiak
Ostalaritza
Bezeroaren instalazioetan bilketa eta entrega
Partikularrentzat mantak, edredoiak, buzoak...

Leku-Eder etxea - Sempere auzoa-Lazkao
Tel.: 943 88 40 90 - 669 872 261

LAZKAO berogailuak

Jai zoriontsuak denoi

ITURGINTZA - GASA

Pedro Berano Salcedo

943 883 158 - 610 214 153

Hirigoi, 34 LAZKAO

ATAUN S. MARTINGO
BARANDIARAN Anaiak

Itzondo
roztegia, S.L.

41 Posta Kutxa
Zubierreka, z/g

94316 09 31 LAZKAO

DAMA

ILEAPAINDEGI-ak

Festa onak opa dizkizue!!

Hirigoi, 16

943 88 58 95 LAZKAO

OSTAISKA

Goxoki denda

- ✖ Goxokiak
- ✖ Fruitu lehorrak
- ✖ Izoziak

Elosegi, 2 LAZKAO

ARRIARAN

MERTZERIA

Haurren jantziak

Hirigoi, 12

943 16 06 82 LAZKAO

PIPAS

JATETXEA

Jauentze, bataio edo edozein ospakizunetarako aukera egokia

Albitxu baserria 943 88 08 05

LAZKAOMENDI

Orain dela 70 urteko argazki bati begira

Ondoa duzen argazkian 1933ko Lazkaoko neska antzerkilarien taldea ageri da. Haiek 'Las gallinas de Martxeli' antzezlanaren aurkeztu zuten herriz herri. Argazkia argitaratzeaz gain, merezi du neska horiek bizitzan zehar egin dutena eta eman dutena aipatzea. 14 nesketatik erdiak bizirik daude eta haietako norbaiti negar malkoak atera zaizkio argazkia ikustean.

Argazki horri begira nagoela ikusi ditut 14 neska lazkaotar, zein baino zein ederrago, politago eta dotereago. Herrian eta herriz kanpo neska ederraren fama zuten orduko lazkaotarrek, oraingoei ezer kendu gabe.

1933. urtean herriz herri ibili ziren antzezlan honekin. Garai hartan Jesusa Aldanondo Madrilén zegoen maistra ikasle. Berak ekarri zuen antzezlanaren egitearen ideia, baita taldea martxan jarri eta antzerkia prestatu ere. Errota

Haundi, Errota Txiki eta Ertziltxon baziren zaldi eta gurdia, beraien gainean ibilera handiak egin zituzten.

Galdera bat etorri zait burura: non bukatuko ote zuten neska hauek oraingo lokomozio eta komunikabideek ematen duten aukerarekin?



Goiko ilaran, ezkerretik hasita: Juanita Irizar, Mikaela Zufiria, Kristina Insausti, Florentina Arruabarrena, Pakita Auzmendi, Joxepa Arruabarrena eta Felisa Muruamendi.

Beheko ilaran: Miren Irizar, Maritxu Eskisabel, Juli Irizar, Jesusa Aldanondo, Miren Larrañaga, Jesusa Eskisabel eta Hilari Aldanondo.

Ondoren zer eman duten

Merezi du, argazkian azaltzen diren izenak emateaz gain, ondoren bizitzan zer eman duten aipatzea.

Juanita Irizar: Iribarre denda zuten eta bere gain izan du erretiratu bitartean.

Mikela Zufiria: Migelene tabernako alaba, gazterik hil zen. Taberna horretan sartu gabeko ataundak, olaberriak eta lazkaotarrik ez ginen izango. Jatetxea eta janari denda ere bazen. Txirrita bertsolariak esan ohi zuen bezala, bera Migelene askotan



GARAIZ

jantziak
Jai zoriontsuak denoi!

Hirigoien, 8-10
Tel.: 943 880 840
LAZKAO

Txiar

**GOZOTEGIA
OKINDEGIA**

Festak ondo pasa!

Hirigoien 20
Tel.: 943 88 11 54
LAZKAO

**IÑAKI BARANDIARAN
arrandegia**

San Prudentzio jai zoriontsuak denoi!

☎ 943 88 00 56
San Jose, 29 LAZKAO

**JOSUNE
arrandegia**

☎ 943 18 03 67 ATAUN

egonda zegoen: Ikusitzen badezu zabalik / tabernako atea / pekatu mortala da / sartu ga-be juatea. Horrelakoa zen taberna hori.

Kristina Insausti: Lazkao-mendiko alaba, Ordiziara ezkondu zen. Berak gozatu gaitu goierritarrak, Ordiziako Unanue gozotegiko etxeko-andrea izan baitzen.

Florentina eta Joxepa Arruabarrena: Errota Txiki-ko alabak, hauek izan ziren okindegia handitu zutenak.

Pakita Auzmendi: Bilboko Athletic-eko jokalaria izan zen Juanito Etxeberriarekin ezkondu zen Intxaurren base-rikko alaba.

Miren eta Juli Irizar: Errota Haundiko alabak 'Las molineras' bezala ziren ezagunak. Garai hartako gazteen begien jomuga ziren, beraiei begira ez baitzen bat aspertzen.

Jesusa eta Hilari Aldanondo: Untxundei baserriko alabak maistrak ziren. Doktrinako irakasle ezagutu nituen nik.

Miren Larrañaga: Berak egin zuen 'Martxeli'-ren pamera. Gerra aurreko Kooperatiba eta denda nazionalistan zerbitzari ezagutu genuen. Denda gerra garaian, 1936an,

desagertu zen, ez zuten pipar-opilik ere utzi lokalean.

Maritxu eta Jesusa Eskisabel: Ertziltxo baserriko alabak. Maritxuk maistra karre-arekin jarraitu zuen bere bizitzan. Bera izan zen Madriletik Martxeliren oilo lapurretako antezelana ekarri eta zuzendu zuena. Jesusa, Olaberriko Amoskategira ezkondu zen. Bere fruituak dira Angel Olaberriko alkate izana, Inazio Lazkao alkate izana, Konsuelo maistra Lazkaon eta Lurdes Lazkao lehendabiziko ikastolako andereño eta lehendakari 1968an. Lehendabiziko ikastola hori San Migel zen eta Juan Begiristan alkatearen laguntzarekin itxi zuten. Ikastola hari, Beneditarren laguntzarekin martxan jarri zen San Benito ikastolak eman zion segida. Lazkao ikastola izaten jarraitzen du eta aurtengo urrian ospatuko den Kilometroak jaiaren zain gaude denok.

Felisa Muruamendiaraz: Taldeko gazteena zen. Meritu handiko emakumea, gaztea zela aita Juanito eta ama Filomena hil zitzaizkion. Berak izan zuen zazpi anai-arreben ardura, baita ondoren bere senarra eta bi semearena ere.

Andres Barandiaran

Andres Barandiaranek Lazkao martxari hitzak jarri dizkio

Iazko jaietako danborradan aurkeztu zen Jabier Muruamendiarazek konposatu zuen Lazkao martxa. Musika egin zuen Jabierrek baina hitzak ere behar zituela eta Andres Barandiarani eskatu zion lan hori egiteko.

Andres bertsoak jartzen ohituta badago ere musikaren konpasaren barruan aritzeak nahikoa lan eman dio eta Jabierrekin elkarlanean aritu da. Hasieran izan zituen kezkak jendeari gustatu zaio la konturatzean uxatu zaizkio egileari. *"Lazkaok merezi zuen martxa bat, musika polita du, airosoa eta alaia"* dio Andresek.

Ondoren dituzue hitzak:

Gora Lazkao,
gora eta gora,
gora dezagun
jai ginen herria.

Festak dira ta herritar guztiak
danborra joaz segi aurrera,
makilak astinduz denok batera
zuzendariaren aginduz.

Entzule dira alboko mendiak,
basapizti ta hegalariak,
beasaindarrak, ordiziarrak,
Zaldibiarekin, Ataun, Olaberri.



Zahar eta gazteak,
neskatxak dihoaz aurretik,
aingerruak antzo
jaiatsiak direla zerutik,
alaitasunez beterik,
jai giroa ikusirik
Euskal Herriko ohiturak
gorde ditzagun.

Atzetik mutilak
danborra, soinu eta txistu
herria kantari.
San Prudentzio festak ditu,
suzirik dizkigute piztu,
etxean ez da bat gelditu
umore ona zabalduaz,
antzarrak hor dihoaz.

Zaldia dantzan kalean,
poxpolina du gainean,
gure ikurrinarekin
herria dena zurekin.

Agauntza erreka ertzean,
maite dugun sorteria
ez da ludian herririk
zu bezain zoragarririk.



*Arrautza
jarriberri
ezin hobeak*


© 943 16 09 71 Ellosegi, 25
LAZKAO

IKER errekadista

Lazkao - Donostia zerbitzua
Eguneroko eramane-ekarriak

☎ 943 88 29 26
608 - 77 14 11

Gurutze, 3 - 3.A
LAZKAO



Madalena, 2 Tfnoa.: 943 88 19 95 LAZKAO

HORNITEGI
LANABES ETA
HORNIGAIK
SUKALDE TRESNERIA



Lau egunetarako txosna-jatetxea zabalduko da jaietan

Aurtengo San Prudentzio jaiak badute ezer berezirik, 2003 urtekoak direla, KMK Lazkaon ospatuko den urte bereko jaiak direla, alegia. Bi ospakizun haven ezkontzaren fruitu KMK'03 tonbola eta txosna dira, guztion entretenimendurako eta ikastolaren laguntzarako aurten festetan izango ditugun ekitaldi guztien artean bi.

Kilometroak-ek Lazkaoko San Prudentzio jaietan txosna-jatetxe zerbitzua eskainiko du. Zerbitzu honen kokagunea San Prudentzio ikastetxea izango da. Alde batetik, aipatutako ikastetxe honek duen kanpoko jolastoki handian (saski baloi kanastak dauden lekuan) ohiko txosna jarriko dute. Bertan, edariak eskainiko dira. San Prudentzio eraikuntzak duen patio txikian, berriz, jangela prestatuko dute karpa baten azpian. Txosna eta jangelaren artean ikastolako sukaldea dago eta horixe izango da, hain zuzen, txosnetako arduradunek eta zerbitzariak bi zerbitzuen arteko komunikazioa errazteko erabiliko duten gunea.

Adierazitako txosna nahiz jangela arratsaldeko 7,30etik goizaldeko 1,30era egongo dira zabalik. Beraz, afariak irauten duen bitartean soilik egongo da irekita. Zerbitzuok lau egunetan eskainiko dira, apirilaren 25etik 27ra eta koadrilen egunean, apirilaren 30ean, hain zuzen.

Hilaren 25ean, ostirala, sagardotegi menua eskainiko da. Menu hau prestatzeko ardura duen talde bat jadanik



badago. Kupelak jarriko dira sagardoa bertatik edan ahal izateko, eta bakailao eta txuletak izango dira jateko. Larunbatean, hilak 26, elkaratek eta Maizpideko langileek prestatutako menua eskainiko dute: menestra eta arrain zopa lehenengorako eta erredondoa eta bakailoa saltsan bigarrenearako. Mahai-bururako, berriz, 'ijito besoa'. Igandean, hilak 27, otartekoak zerbitzatuko dira eta koadrila egunean, apirilak 30, nahiko oirlasko erre eskainiko da txanpainarekin.

Ostiraleko eta larunbateko menuen kasuan, txartelak aldeztu aurretik jarriko dira salgai herriko tabernetan. Izan ere, jangelak 200 pertsonarentzako tokia du bakarrik eta txartelak erosiz egin beharko da erretserba.

Igandeko eta asteazkeneko kasuetan, jendea iritsi ahal sartuko da jendea jangelan bai ogitarteko bai oilaskoak dastatzera. Ostiraleko menuaren salneurria 18 eurokoa dela zehaztuta dagoen arren, beste prezioak zehazteke daude.

Jangelaren iturburua taldeak sortu zirenekoa da eta urriaren 5erako, festetan entsaio moduko bat egitea pen-

tsatu da, aukera ezinhobeak baita martxaren nondik norakoak azaltzeko. Honetaz

gain, Lazkaon ez dagoen zerbitzu bat emateko ideiarekin hartu zuten jangela antolatze-ko erabakia. Txosnena, berriz, jende asko lanean jarri beharko den ekintza izango da. Laurogei pertsonak izena emana dute jadanik bertan aritzeko. Beste hamar bat pertsonekin osatuta geldituko dira lan taldeak. Janari eta jenero asko mugituko denez, jendearen parte hartze handia beharko da. Guztion laguntza ezinbestekoa da. Bi eguneko kontua da, anima gaitzezen.

Tonbola

Kilometroaken inguruan lanean diharduten batzordeetako baten ardura da tonbola. Azarotik ari da batzorde hau lanean eta abendurako, urtean zehar bi tonbola antolatze-ko erabakia hartua zuen jadanik, bata San Prudentzio jaietan eta bestea KMK03 egun berean, urriaren 5ean hain zuzen.

Une horretatik aurrera makinak martxan jarri eta oinarritzko azpiegituraren bila hasi ziren tonbolako arduradunak, hots, biltegi baten bila eta "txiringito" baten bila. Biltegia, Maizpide Euskaltegiak erakutsitako eskuzabaltasunari esker lortu zuten Areso auzoko baju batean. "Txiringitoa", sarien erakusleihu izango den karabana berriz, Zegamatik etorriko da.

Hurrengo pausoa produktuen bilketa egitea zen. Tonbolako arduradunek produktu bilketa selektiboa egitea erabaki zuen ordea, Lazkaoko eta bakar-bakarrik Lazkaoko dendetara mugatuko zena. Arrazoiak, oso ximpleak: KMK k ez zion ospatzear zegoen Korrikari oztoporik egin nahi. Beraz, taldetxoetan banatuta, tonbola antolatze-ko lan ardura hartu zutenak, merkatarik bakoitzarengana zuzendu eta pertsonalki nahiz gutun baten bidez beraien nahi eta beharrak adierazi zizkieten.

Lazkaoko denda, taberna, jatetxe eta zerbitzu guztietara zuzendu ondoren, emaitza oso baikorra izan da. Merkatariek ahal edo nahi dutena eman dute eta ordainetan "KMKren adiskide" txartela jasoko dute Kilometroaki emandako laguntzaren adierazgarri.

Jaietan, ziur aski plazan aurkituko dugun "txiringitoan", sari aski erakargarriak eskuratzeko aukera izango dugu euro baten truk. Sariarik ezear, "eskerrikasko" hitza duten boleto horietako bost aurkeztu eta egunero egingo den zozketan parte hartzeko zenbaki bat emango digute dohainik. Eta zozketako sariak benetan dira tentagarriak!.

Bukatzeak, ahaztu gabe eskerrak eman nahi dizkiegu KMK03rekin hain zintzo portatu diren merkatarik guztiei.

LAZKAOKO FESTETAKO GIROA

MANUEL-ENEA TABERNA

Festa onak pasa!

Elosegi, 5 ☎ 943 88 20 29



OROBIONE TABERNA

GURUTZE TABERNA

SANPROINTZIO JAIETAN
PINTXOAK ETA BOKATAK
JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU

GURUTZE 1



GIROA TABERNA

*Pintxo ederrak
jateko aukera*

Areso, 6 ☎ 943 88 77 40

ANSOATEGI HERRIKOA



*Jaietan ere
falta direnak
gogoan*

Elosegi, 15 ☎ 943 88 68 52

DORRAO TXIKI

TABERNAK

*Festa zoriontsuak
opa dizkizue!*

ESTANKO TABERNA

*Festa zoriontsuak opa
dizkizuegu denoi*

Elosegi, 17

GERRIKO TABERNA

Pintxoak
Ogitartekoak

Elosegi, 16 ☎ 943 88 99 43



TABERNA

Uhaitz, 2 LAZKAO

KIROLDEGI TABERNA

*Eguneroko menua
Pintxoak
Bokatak*

☎ 943 16 19 66

ITZALA TABERNA


Tfnoa.: 943 88 25 28

Jose Lasa,1
LAZKAO

ZELATA TABERNA

Berriro zabalik

Giro ezin hobea!





GARMENDIA

Teilatuak

San Prudentzio jai zoriontsuak lazkaotar guztioi!



Teilatuak

Aukera ugari,
TBF eta G.F.
bermearekin
kalitatez eta
egoki
bukatutako
tailatuak.

Zurezko egiturak

Imnersio eta
hustueraz
landutako
zurezko egiturak,
(VAC-VAC)
sistemaz eta
VACSOL bidez
babestuak.

Hodiak

Tokian tokiko
hodien
instalazioak,
nola aluminiozko
ala kobrezko
25m. bitarteko
soldadurarik
gabeko luzera
linealetan.

Mallutz industrialdea, 25-26

ORDIZIA

Tel. : 943 161 032 / Faxa: 943 160 842

E-mail: garmendia@garmendiatejas.com

● www.garmendiatejas.com



Premiazko deialdia: Kilometroak-ek zure laguntza behar du

KMK03 festaren antolaketa dagoeneko bere erdigunera iritsi da. Sei hilabete barru izango ditugu Kilometroak Lazkaon eta iazko urrian egindako lan deialdiak jende asko lanean jarri bazuen ere, oraingoa une aproposa da lanerako bigarren deialdi bat egiteko. Izan ere, Aste Santu nahiz udako oporraldiak lanaren etenaldiak ekarriko dituzte eta jendearen deskonektatzea akaso ere bai. Baina urriaren 5a berehala dugu gainean eta honengatik guztiarengatik, behar-beharrezkoa da lazkaotar guztiak erne eta animaturik mantentzea.

Asmo honekin apirilaren 3an guraso guztiak bilera batera izan ziren deituak. Bilera hauetan, KMKen inguruan orain arte egin den guztiaren berri jaso zuten eta, aldi berean, aurrerantzean izango diren lanei erantzuteko ikastolak kide guztien parte hartzea beharrezkoa dela adierazi zitzairen. Inplikazio hau zertan edo nola gauzatu ere azaldu zitzairen, horrela, be-

harrik handiena honako lau alor hauetan dagoela ohartaraziz:

- 1.- Auto zozketako boletoen salmenta irteeretan.
- 2.- Erropa salmenta irteeretan.
- 3.- San Prudentzio festetako txosnan.
- 4.- Metxeroen salmentan.

Idea nagusia beraz haxe izan zen eta haxe da: zenbait eta boluntario gehiago, orduan eta lan arinagoa egin behar du pertsona bakoitzak. Aipatutako bilera ez da azkenaldi honetan jendea dinamizatzeko egin den ekintza bakarra. Ikasle ohi guztiek eskutitz bana jaso dute etxean beraien partaidetza eskatuz.

Lazkaoko taberna eta dendetan ere jarriko omen dituzte izena emateko orritxoak. Erraztasun guztiak jarriak daude beraz parte hartu nahi duenarentzat.

Animatu, nork bere harrikozkorra ekarri eta Lazkaoko ikastola baina eraikuntza sendoagorik ez da egongo!

Takolo, Pirritx eta Porrotx, eta mendi astea

Maiatzaren 10ean Takolo Pirritx eta Porrotx izango ditugu gure artean, kiroldegian, 18:30ean. Sarrerak: alde zuretik egongo dira salgai KMK dendan eta jaietako tonbolan ziurrenik. Salneurria: 5 euro

Maiatzaren 12tik 17ra Mendi Astea ospatuko da, eta egunero mendiarekin lotutako jardunaldiak egongo dira. Larunbatean (hilak 17), mendi irteera egongo da.



Bertso jaialdian ez ziren aurreikuspenak bete

250 lagun inguru bildu zen bertsolari jaialdian, eta antolatzaileen esanetan, aurreikuspenak ez ziren bete ikus-entzule kopuru handiagoa espero baitzen.

Gainerakoan, jaialdia guztien gustukoa izan zen eta bildutakoek saio ederraz gozatu ahal izan zuten. Bertso saio honen xedea, Lazkao Txikiren heriotzaren X. urteurrena eta Kilometroak uztartzea izan zen.

M. ARTOLA MODELOAK

Fundiziorako modelo eta plaken tailerra.

Zubi Erreka, z/g

☎ 943 88 79 30

LAZKAO



GERRIKO LIBURUDENDA

☎ 943 88 65 00

Elosegi 16 LAZKAO

Geurean geure kultura!

Goierriren bihotzean, GERRIKO

ALUMINIO ETA PVC AROZTEGIA

Eskatu aurrekontuak konpromezurik gabe

AZKARATE

IBABE INDUSTRIALDEA

☎ 943 88 81 01

LAZKAO

OSTEOPATIA

Jose Gisasola Dr. R.P.S. 213/97

- LUNBAGO, ZIATIKA, HERNIA DISKAL
- ZERBIKALGIA, ZEFALEA, MIGRAINA, ARTROSIS.
- TENDINITIS, KIROL LESIOAK.

Eskatu ordua: ☎ 629 45 20 53

Andra Mari, 13 behea ezk. - BEASAIN

Peito Castelo artisaua:

"Duela urtebete atera nintzen armariotik, artisau bezala"

Peito Castelok bizitza osoan izan duen zaletasun bat, jendaurrean azaldu zuen duela urtebete bat, Lazkaon bizi zen Sandra Fernandez artisauari esker. Klean aurkitutako materialari forma eman eta artelanak egiten ditu Peito Castelo artisauak. Momentuz gainera, arrakasta handiz.

Ispiluak, giltzatakoak, boligrafoak, esekitokiak edo pertxeroak, kaxak, markoak, koadroak edo muralak, collageak... sormen lan ugari egiten ditu Lazkaon bizi den Peito Castelo artisauak. Teknika berezi eta zehatzik gabe, sormenari eta irudimenari lekua utzita. Marian neska lagunaren ideiak, Peitok berak diseinatzeko ditu.

Material zehatzik ere ez du erabiltzen Peitok. "Klean



Antzuolarra da Peito Castelo, baina Lazkaon gustura bizi da, lazkaotar sentituz.

aurkitzen eta biltzen dudana: enbor azalak, zumea, huntza, kanabera banbutik ateratako muina, hurraren zupatzaileak, erdoiltutako txapak, arandelak, harriak, tornilloak, enkofratzaileak... "Gustatzen zaidan materiala jaso eta tailerrean pilatzen dut. Askotan ez dut jakiten zertarako eta noiz erabiliko dudana, baina jaso egiten dut".

Material ezberdinak uzartuz eta tartekatuz, kolorea sartuz osatzen ditu eskulan ezberdinak. "Lazkaoko Bene-

ditarretan dagoen kañabera aprobetxatzen dut boligrafoak egiteko, urtarrilean ebakitzeko baitute beneditarrek kañabera. Banbuarekin kaxak egiten ditut, elementu ezberdinekin dekoratuta", dio Peitok. Gauza praktikoak egiten saiatzen da, baina "normaltasunetik ateratzen naiz, gauza bereziak egiten saiatzen naiz. Kezkatzen hasita nago, helduei ere nik egindako giltzakoak-eta gustatzen zaizkie eta. Zahartzen ari ote naizen galdetzen dut", dio irribarrez.

Koaderno erabiltzen du aldean, burura datozkion ideiak apuntatzeko. Pieza guztiak bakarrak dira, berdinik ez dago. "Ez dut erreplikatzeko. Gauza berdinak egin ez aspertu egiten naiz. Orduan, ez aspertzeko, beti gauza berriak egiten ari naiz". Kolore bizi zalea da Peito Castelo; berdeak, urdinak, kaobak... "Baina hemen jendea kontserbadoreagoa da, ez zaio arriskatzeko gustatzen".

Aspaldiko zaletasuna

Aspalditik du lazkaotarrak material ezberdinak birziklatuz artelanak sortzeko zaletasuna, baina beti ere, etxerako eta lagunentzako. "Baina Sandra Fernandezek atera ninduen armariotik, artisau arlotik hitz eginda. Behin tailerrera etorri eta egiten nuen ikusita, kalera saltzera ateratzeko esan zidan. Lotsa ematen zidan baina ateratzea erabaki nuen. Urtebete bat izango da".



**BEREBILEN ELEKTRO
KONPONKETAK**

**HIRIBARREN, 17
TFNOA.: 943 88 74 58
LAZKAO**

**"Eguneroko ogia,
ogi bereziak eta
pastel ezin hobeak"**



K. Nagusia 35 Elozegi, 14 Sta. Maria, 19
☎ 943 88 77 58 ☎ 943 88 72 79 ☎ 943 16 00 44
BEASAIN LAZKAO ORDIZIA



**Berogintza
Iturgintza
Gasa
Klimatizazioa**

Tel.: 943 161 277 Faxe: 943 160 933
Nafarroa Etorbidea, 27
BEASAIN
Tailerra: Okorro, 6 - ORDIZIA

Azoketan ibiltzen da gehienbat, baina Lazkaoko Gerriko dendan eta Beasaingo Elkartasun dendan iraunkorki salgai ditu Peitok bere eskulanak. Orain, Gabiltzan, Gipuzkoako Artisau Elkarte-an sartzeko asmoa dauka.


Azokak erakusleihu garrantzitsuak izaten dira artisautzat. Dena den, Peitoren ustez, jendea ez dago ohituta kalean altzariak erostera. Peito Casteloaren lana ezagutu eta erosi nahi duenak, Lazkaoko festetako artisau azokan aukeran izango du, apirilaren 28an.

Artisau lana garestia dela esan ohi duenik ere badago. "Denetik dago. Batzuk badakite zenbaiterainoko lana dagoen eta azken batean ez dira sartutako ordu guztiak kobratzen. Ez dut orduka kobratzen. 6 eurotik hasi eta 300 euro bitarteko artelanak ditu salgai.



Harrera ona

Gustura dago jendeak izan duen harrerarekin. "Lehenengo momentuan niretzat garrantzitsuena ez zen dirua, nik egindako lan bat 20.000-30.000 pezeta ordaintzeko prest zegoen jendea zegoela ikusteak ematen zidan poza. Nolabait, egindako lanaren errekonozimendutzat hartzen dut zerbait saltzea, jendeari gustatzen zaiola nik egindako lana", aitortu digu.



Inguruko jendeak baloratzen omen du Peitoren lana eta kritika ona egiten diote. "Lapurtutakoak ote diren galdetzen didate. Izan ere, ni oso aktiboa bainaiz, oso mugitua, ezin naiz geldirik egon. Ezagunei kosta egiten zaie ulertzea zortzi orduan nola egon naitekeen iltze artean, geldirik. Baina lasaitzeko baliotzat hartzen nau, baina hori bai, stockean lan asko izanez



gero, urduri jartzen naiz. Baina hori gero eta gutxiago gertatzen zait".

Zaletasuna ogibide bilakatzeko gustatuko litzaioke Peito Castelorri, baina momentuan, artisautzatik bizitzea ezinezkoa du. Amets bat badu Peito Castelok: hormetan muralak egitea, "gauza handiak egitea". Ametsa betetzeko zorian dago, bi etxetako hormak zain baititu Peitoren irudimena eta sormena irudikatzen.

AUTO-MOTO LAGUNAK

Ibabe Industrialdea, 19

943 88 91 51

LAZKAO

- ✖ Autoen konponketa orokorrean
- ✖ Gasolina eta diesela
- ✖ Norabide zuzenketa
- ✖ Olio aldaketak, koipeztaketak
- ✖ Gurpilak, zulatuak
- ✖ Diagnosiak

AMEBI



Sagardotegia

Sanprointzioak ondo pasa!

Apirilak 26, larunbat gaua eta
apirilak 30, asteazken eguerdia
trikitariek in alaituak.

943 16 25 23

Zubierreka,9

LAZKAO

Aseguru Korreduria

SEGURUEN PROFESIONALAK

Jai zoriontsuak denoi!

MUNDUATE, S.L.

Elosegi, 1 - behea

Tfnoa.: 943 88 86 20

Tfno. mugikorra: 609 49 14 41

Faxa: 943 88 91 18

LAZKAO

Idurre Salvador lazkaotarra Xukan taldearekin aritzen da dantzan

"Entsaioak eta koreografiak eginez gustura ari naiz Xukan taldean"

Iazko San Prudentziotan egin zuen Idurre Salvador 23 urteko lazkaotarrak estreinaldia herritarren aurrean Xukan taldearekin. Dantza, trikitixa eta bertsoa uztartzen dituen 'Iturrian zer dago?' ikuskizuna aurkezten ari dira herriz herri. Dantza Lazkaoko haurtzaindegian hezitzaile modura lan eginez tartekatzen du.

Ze ibilbide egin duzu dantzaren munduan?

Txiki-txikitatik, 8-9 urtetatik, Lazkaoko dantza taldean hasi nintzen. Hemen urte dezente eman nituen, bai dantzari modura bai irakasle modura. Gero, nire adineko talderik ez zegoela ikusita, Beasaingo Aurtzaka taldearekin hasi nintzen, baina belauneko lesio bat dela eta, dantza utzi egin behar izan nuen. Lesioa sendatu ondoren, Beasain eta Ordiziako dantza taldeekin hasi nintzen berriz. Gero, Xukan taldekoak ezagutu nituen, taldean sartzea proposatu zidaten eta hemen gaude. Espe-rientzia berri bat da.



Eta lesioa guztiz gaindituta al duzu?

Orain dela gutxi bajualdi txiki bat izan dut berriz, baina beno, medikuek badakite zer den eta dantza egiteko baime-na eman didate.

Xukan taldean sartzea proposatu zizutenean, nola sentitu zinen?

Dantzaren munduan badaude koreografiak eta egiten dituzten beste talde batzuk, baina Xukanek euskal kulturaren barruan hiru alor batzen ditu: dantza, trikitixa eta bertsolatza. Proposatu zidatenean, berriz, beldurra sentitu nuen, dantzariak oso maila ona baitute, txapelketak irabazi dituzte... Entsaioak eta koreografiak eginez gustura ari naiz.

Entsaiatzeko eta zer moduz moldatzen zarete?

Normalean gauez, laneko ordutegiek baldintzatuta.

Noiz hasi zineten 'Iturrian zer dago?' ikuskizuna plazaratzen?

Lehen saioa Bilbon egin genuen, iazko otsailean eta hurrengo Lazkaon egin genuen, festatan.

Zuen ikuskizuna aurkezterakoan "sedukzio artistikoa" egiten duzuela diozue.

Bai, beno. Istorioa hauxe da: aita eta semea baserri batean bizi dira, eta bi alaba dituen ama bat ere agertzen dira, kalean bizi direnak. Herrian azoka bat dago eta aita semeak jaisten dira etxeko produktuak saltzera. Bidean hainbat

geldialdi egiten dituzte, eta halako batean labaderoa dagoen iturri batera iristen dira. Han daude ama-alabak. Momentu horretan bertsolariak hasten dira zirikatzen, eta bizi ematen diote ikuskizunari, sedukzio joku bat sortuz.

Zer dantza mota egiten dituzue?

Batetik, euskal dantzan oinarritutako pausuak daude, fandangoa, arin arina... pare bat koreografia eta beste alde batetik, tangoa eta ballsa ere dantzatzen ditugu.

Urte eta gehiago daramazue ikuskizun honekin. Zer nolako asmoak dituzue aurrera begira?

Momentuz aurrera segitzeko asmoa dugu. Orain, uda parterako ikuskizun asko izango ditugu festak direla eta, eta horiek dauden bitartean aurrera jarraituko dugu.

Eta San Prudentziotan, zer?

Horrek ez dauka zerikusirik 'Iturrian zer dago?' ikuskizunarekin. Hori norberak ikusi behar du zer egiten duen.

Baina plazan geroz eta dantza gutxiago egiten dela egia da.

Bai, bai. Oraingo taldeekin hasieran umeak aritzen dira, baina adin batetik aurrera tarteretan sartzen gara eta...

Joxi

Iturgintza - Berogintza - Gasa

Carrefour merkatalgunea

Tel. - faxa: 943 88 19 87 - 676 178 488

OLABERRIA

OLARBIDE harategia
festa onak opa dizkizuegu
Odolkiak eta bertako haragia

Elosegi, 52

943 88 17 17

LAZKAO

Elosegi, 15

943 16 05 16

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA

Erizain laguntzailea

Osasun familia.

A-D ereduetan



TITULAZIOA:

Erizaintzako laguntzaile-teknikaria.

IRAUPENA:

1.400 ordu (ikasturte bat eta erdi),
lantegietan egiten den prestakuntza
barne (400 ordu).

LANBIDE ETORKIZUNAK:

- ✗ Ospitaleko erizain laguntzailea.
- ✗ Lehen artapenetako laguntzailea.
- ✗ Kontsulta pribatueta.
- ✗ Zaharren egoitzetan.
- ✗ Hortz-kliniketan laguntzailea.
- ✗ Gaixoen zaintza.

Oharra: ikasleen
garraiorako dirulaguntza
aurreikusten da.

J.M. Iparragirre B.H.I.
Santa Barbara Bidea z/g.
Urretxu 20700

Tel./Faxa: 943 721413- 943 721403
E-posta: jmiparragirre@edunet.es



**OIANGUREN BHI
ORDIZIA**

Altamira auzoa z/g
Tlfnoa.: 943 880 862
Faxa: 943 164 121
012282aa@hezakuntza.net



OIANGUREN IKASTETXEA

BATXILERGOA

- Giza eta Gizarte zientziak
- Natur eta Osasun zientziak

- Aukera zabala (bi modalitate, 26 ikasgai aukeratzeko: Ekonomia, Ordenagailu bidezko diseinua, Alemana, Informatika, Teknologia, Psikologia, Grekera, Laborategi teknikak...)
- Orientazio pertsonala eta akademikoa.
- Goi mailako ikasketetarako bide egokia.
- Ikasleen interesa eta prestakuntza premiei erantzun egokia.

IZEN EMATEA: maiatzaren 2tik 9ra

E G U Z K I A B A D A T O R . . .

ARGI
O P T I K A

IKUSMEN AZTERKETA
DOHAINIK



eguzkitako betaurrekoetan aukera zabalena



501/11

502/3

646/2D

647/7C

648/56

656/6C

BVLGARI
Occhiali

banatzaile ofiziala

NAFARROA
ETORBIDEA, 14
9 4 3 8 8 3 1 1 0
B E A S A I N

Salvatore Ferragamo
EYEWEAR

banatzaile ofiziala

IDIAZABALEN VI. GAZTA EGUNA

Maiatzak 4, igandea



Idiazabalgo
Udala

Egitaraua

Apirilak 29, asteartea:

19:00etan: Martin Berasategi sukaldariaren eskutik, 'Gaztaia sukaldean' hitzaldia, Pilarrenean.
Ondoren: Mami txapelketako irabazleen emaitza.

Maiatzak 2, ostirala:

19:00etan: Otsoa Elkartean, sagardo dastatzea, Xabier Kamio enologoaren eskutik.

Maiatzak 3, larunbata:

20:00etan: Hitzaldia: 'Extremadurako artzaintza', Fermin Lopezen eskutik. Extremadurako 3 gazta klase dastatzeko aukera.

21:00etan: Herri afaria herriko elkarteetan (txartelak aurrez salgai tabernetan).

Maiatzak 4, igandea:

10:00etan: Artzainek gazta salmentarako postuak irekiko dituzte.

Erramun Martikorenaren bi kantu saio.

11:00etan: Herriko artzainek gazta egingo dute era zaharrera eta modernora.

11:00etan: Artilegintza erakustaldia.

12:00etan: Mami erakustaldia.

13:00etan: Joxe Golburu artzainari omenaldia.

Arratsaldean, Herri Kirolak Igarondo Pilotalekuan:
Banakako Urrezko Aizkora: Nazabal Arrospide/Arria arteko irabazlearen aurka.

Gaztaren VI. eguna maiatzaren 6an, Idiazabalen

Maiatzeko lehendabiziko igandea izendatu zuen Udalak Gaztaren Eguna ospatzeko eta aurten seigarren edizioa ospatuko da. Igandekoa, maiatzak 6, izango da jai egunik handiena. Urtero moduan Euskal Herri osoko artzainak etorriko dira Idiazabala. Jendeak, gazta doan dastatu eta beraien ustez onena zein den aukeratzeko modua izango du. Iaz 400 kilo gazta banatu ziren Idiazabala etorritakoen artean. Egitarau zehatza ondoko orrian duzue.

Azken sei urte hauetako ohiturari eutsiz aurten ere omenaldia egingo zaio herriko artzain bati. Joxe Goibururen txanda izango da edizioa honetan. Jaiotzez Idiazabalgoa da Goiburu, baina 36 urte zituela joan zen bizitzera Galarretara (Araba).

Gaur egun 260 buruko artaldea dauka bertan. Bizi guztia artzain egin du, Idiazabalen lehendabizi eta Araban ondoren. Idiazabalen bizi zela, udan Urbia aldera artaldea eramaten zitueneko kontuak gogoan ditu Joxek. Neguan,



Idiazabalgo beste artzain batzuk egiten zuten moduan, Bizkaira joaten zen Joxe artaldearekin. Lau egun ematen zituzten oinez, Mungia aldean hiru hilabete egin ahal izateko.

Aurtengo edizioan Extremadurako gaztari tarte berezia eskainiko zaio. Maiatzaren 3an, larunbata, Extremadurako artzaintzari buruzko hitzaldia egongo da, eta bertako gaztak dastatzeko modua ere izango da.

Aste barruko ekitaldietan berrikuntza bat izango da aurten: sagardo dastaketa. Sukaldean gaztak duen garrantzia eta presentziari buruzko hitzaldia ere antolatu dute.



Egoitza berria

Artzai Gazta eta Zumitz elkarteek egoitza berria izango dute laster Idiazabalen. Artzai Gazta elkarteak Udaletxeko beheko aldean du orain egoitza. Elkarteak artzain guztiei ematen die zerbitzua bertatik. Zumitz elkarteak, Idiazabal etiketa beltza eta urdina kudeatzen ditu, eta Pilar Enean du bulegoa une honetan.

Ekainerako, bi elkarteek egoitza berria eta bateratua izango dute. Idiazabalgo Kiroldegiaren alboan Udalak sustatuta egin dituen etxe bizitzaren beheko aldean egongo da egoitza berria. Eraikinaren erdia baina gehiago hartuko du.

Bi elkarten bulegoa eta bilerak egiteko aretoa izango ditu. Bertan egingo dira aurrerantzean gazta dastaketak eta elkarte-ko bazkideen bilerak.

Xabier Urteaga

ZALBIDE TOLARE SAGARDOTEGIA

- ✕ Sagardoa txiritik irailaren bukaera arte
- ✕ Asteburuetan eguerdi eta iluntzetan
- ✕ Arrainean berezitasuna

© 943 65 21 76

ABALTZISKETA



ZEGAMA

OKINDEGIA

*Eskuz egindako
ogi naturala*

☎ 943 80 10 66

Olaberria Kalea, 6 ZEGAMA

SALMENTA PUNTUAK:

Beasain: Charter, Oskarbi, Osiña, Orlegi eta Orlegi Natxo. **Ordizia:** Garmendia, Sabino, Muño, Osasun eta Gorosti. **Lazkao:** Rufi, Lasa, Viaña eta Osaki. **Legorreta:** Dorronsoro. **Zegama:** Kooperatiba eta Maria Jesusen denda. **Segura:** Erosle. **Idiazabal:** Ahizpak. **Ormaiztegui:** Iñaki Erosle. **Zumarraga:** Rueda dendak. **Legazpi:** Jabi harategia.

berriz aranburu

ERROPADENDA

Nagusia, 8

☎ 943 88 04 53

BEASAIN



N-1 errepidea, lurre auzoa

☎ 943 88 43 01 OLABERRIA

Etxegarate ofizialki inauguratuta

Haize eta euri erauntsi handi baten pean eman zion irekiera ofiziala Etxegarateren Gipuzkoako zatiaren bikoizketari Roman Sudupe Gipuzkoako Ahaldu Nagusiak. Orain dela hilabete pasa ireki zioten bidea zirkulazioari, eta apirilaren 2an egin zuten inaugurazio ofiziala agintariek.

Etxegarateko gainean jarrita zegoen hitzordua. Eguerdia gerturatu ahala hasi ziren hurbiltzen Gipuzkoako Batzar Nagusietako hainbat ordezkari, baita Goierriko herri batzuetako udal ordezkariak ere. Tartean ziren Roman Sudupe Diputatu Nagusia eta Antton Jaime Garraio eta Errepide diputatua. Antton Irizar Idiazabalgo alkatea ere hurbildu zen inaugurazio ekitaldira. Enpresa eraikitzaileetako ordezkariak ere ez zuten inaugurazio ekitaldia galdu nahi izan; tartean zen, Antonio Sukia enpresagizon zaldibarra.

Bi neska gaztek agintariei dantzatu zieten ohorezko agurraren ondoren, zinta moztu zuten Roman Sudupek eta Antton Jaimek, Etxegarateko bikoizketa ofizialki inauguratuta utziz. Ekitaldia amaitzean hitz hauekin laburbildu zuen Jaimek azken lau urteotan bizi izandakoak: "Atzerapenak izan dira, batik bat, lurrek erakusten zuten zailtasun geologikoengatik. Hala ere, lanek iraun duten denbora guztian Etxegarate zabalik mantendu dugu, eta hori erronka handia izan da, ez baita erraza tamaina honetako obrak hainbeste zirkulazioarekin uztartzea".



Eguraldi txarra izan zen inaugurazio ekitaldiko ezusteko protagonista.

Atzera begiratua

Hainbat eztabaida eman ondoren, 1999ko martxoan adjudikatu zizkien Gipuzkoako Foru Aldundiak ondoren aipatuko ditugun enpresei Etxegarateko bikoizketa egiteko lanak: Agroman-Ferrovial,

Gedi, Sukia Eraikuntzak eta Asfaltos Naturales de Campezo. Gero, ordea, 3 proiektu aldatu idatzi ziren. Horietatik garrantzitsuenak bigarrena izan zen, zenbait hobekuntza egitea jasotzen zuena. Esleipen aurrekontua 50.000.000 euro ingurukoa izan da.

Trazatu berriaren ezaugarriak

N-1 errepidearen Etxegarateko sailhesbidea Nafarroako mugatik hasi eta Idiazabalgo hegoaldeko lotuneraino doa, guztira 8.458 metro. Galtzada bikoizteko Irungo noranzkoan beste galtzada bat egin da. Hasierako zatian egungo zabalgunea zabaldu da, baina mendate gainera iritsi baino lehen, egungo galtzadatik banandu egin da. Lehengo galtzada Gasteizko norabidean igotzeko bakarrik gelditu da.

Galtzada berriak trazatu berria du mendate gainera Idiazabalgo hegoaldeko lotuneraino, eta oro har, kota altuagoetan barrena doa. Galtzadak 3,5 metro zabaleko bi karril ditu, 2,5 metroko bazterbidea eskuin aldean eta metro batekoa ezker aldean. Gutxieneko erradioa 250 metrokoa da eta aldaparik handiena %6koa, 4.800 metroko luzeran. Gehieneko peralte %8koa da eta gutxienekoa, berriaz, %2,5koa. Larrialdiko bi frenatoki egin dira, bata bukaerako zatian, eta bestea hiru kilometro lehenago.

Mendate gainean lotune osoa egin da, bi noranzkoetatik inguruko etxe guztietara sartzeko aukera ematen duena. Urtsuan auzora

Orduan hitzartutako akordioaren arabera, 2001eko uztailean jarri zuten lanak amaitzeko epea, baina bigarren proiektu aldatuan jasotzen ziren hobekuntzak medio, eta lur mugimenduan izandako arazoak kontuan hartuz, 2002ko ekaina finkatu zen lanak bukatzeko epe bezala. Harrezkero errepide berria zerbitzuan jartzen joan da. Behin behinean bazen ere, bikoizketa pasa den abenduan bukatu zen, izan ere, 1,5 kilometroko karril bat ez baitzuten ireki martxoaren 6a arte. 2002ko ekainetik hona izan den atzerapena eraikitzailearen erruz izan dela esan du Foru Aldundiak, eta hori dela eta hilero 150.000 euroko isuna ordaindu behar izan dute eraikitzaileek. Ia lau urte behar izan dituzte lanak bukatzeko.

sartzeko ere lotune osoa aurreikusita da; hartara, mendate gainaren eta Idiazabal hegoaldeko lotunerainoko tartean, erdibidean, itzulbidea egiteko aukera ere izango da.

Horiez guztiaz gain, hiru tunel, hiru zubi eta 28 horma egin dira trazatuan zehar. 230 metroko tunel naturala, eta bi tunel artifizial, paraleloan, 80 eta 66 metrokoak egin dira. Bi betelan handi ere egin dira: bat 1,4 milioi metro kubikokoa eta 87 metroko gehieneko altuera duena, eta bestea 0,8 milioi metro kubikokoa eta 60 metroko gehieneko altuerakoa. Hamar metroko horma ainguratuak eta 25 metroko gehieneko altuera duten horma berdeak ere egokitu dira.

Lan hauek iraun duten bitartean, N-1 errepidea zirkulaziorako irekita mantendu da, eta ahal izan diren eragozpen gutxien sortzen ahalegindu direla azaldu zuen Antton Jaime diputatuak. Obra garaian ibilgailu arin gutxiago ibili da, baina ibilgailu astunen kopurua mantendu egin da. Azken urtean 12.500 ibilgailu ibili dira eguneko, horietatik %55 ibilgailu astunak izan dira. Jaimeren arabera, obrak amaituta zirkulazio nabarmen handituko da, eta egunean 14.500 ibilgailu ibiliko direla aurreikusten dute.



ETXEGARATEKO AUTOBIA: Zorioneko errealitate bat

Goierritik bertatik bultzatua izan da. Landu ere, ia artisauek bezalaxe landua izan da egiterakoan. Gipuzkoako geografi guneen arteko zatirik preziatuenetakoan egin da. Hori guztia berekin duelako, Etxegarateko autobidea, goierritarrek etorkizunean jarri duten konfiantzaren, oparotasunaren eta aurrerapenaren ikur dugu, dagoeneko.

Obra bikain hori burutzean, Goierrik, tradizioa eta abangoardia uztartu ditu berriro, bertako kemena eta mundu-ikuspegia, eta lehenaz gain, gure ingurunearen gizarte- eta ekonomi garapena bultzatzeko motor bihurtu da.

Gipuzkoako Foru Aldundiak gogoz eta asmo tinkoz bultzatu du Etxegarateko autobidearen eraikuntza eta egiteko zailtasun tekniko handiak eta ugari izan ditu. Hala ere ordea, guztion ahaleginez, zailtasunak gainditu egin dira. Horregatik, gure esker ona adierazi nahi diegu herritar guztiei, lanek iraun duten bitartean erakutsi dizkiguten pazientzia, ulermen eta laguntzagatik.

Beraz, Etxegarateko autobide berri hau, Gipuzkoako benetako korridore estrategikoa dena, goierritar guztion aberastasuna eta ongizatea ugaltzeko baliagarri izatea nahi dugu.

Eskerrik asko.



U.T.E. Etxegarate

Txindoki-Alkartasuna

Institutua

Batxilergo guztien



ADI:eskaintza berria
Batxilergo Eleaniztuna

Unibertsitateko ibilbidea:

Arte Ederrak
Ikus-entzunezko komunikazioa
Industri diseinuko injinerutza teknikoak
Publizitatea...

Goi-mailako Lanbide Heziketa:

Irudia
Ikus-entzunezko ekoizpena
Diseinu eta ekoizpen editorea
Altzari diseinua
Arropa diseinua...

ARTE BATXILERGOA



HUMANITARIA

Unibertsitateko ibilbidea:

Injinerutzak
Arkitektura
Fisika
Matematika...

Goi-mailako Lanbide Heziketa:

Fabrikazio mekanikoa
Produktzio zerbitzua eta Mantenimendua
Elektrizitate eta elektronika
Egurra eta altzariak
Automozioa...

TEKNOLOGI BATXILERGOA

Izen ematea: Mai

Ugartemendi, 6. 20200 Beasa



Telf. 943-880753

kalitatezko eskaintza

NATUR ETA OSASUN ZIENTZIEN BATXILERGOA

Unibertsitateko ibilbidea:

Medikuntza
Erizaintza
Albaitaritza
Fisioterapeuta
Kimika
Matematika
Injinerutzak
Arkitektura...

Goimailako Lanbide Heziketa:

Ingurumen kimika
Informatika
Osasungintza
Nekazar/jarduerak...

Heziketa:

koizpena
n editoriala



UNITATE ETA GIZA-ZIENTZIEN BATXILERGOA

Unibertsitateko ibilbidea:

Ekonomikak
Administrazio eta enpresa
Humanitate-enpresa
Zuzenbidea
Filologia eta Itzulpengintza
Geografia, Historia...

Goimailako Lanbide Heziketa:

Administrarritza
Merkataritza eta Marketing
Ostalaritza eta Turismoa
Zerbitzu soziokulturalak...

imendua

ADl:eskaintza berria
Batxilergo Eleaniztuna



a t z a r e n 2 t i k 9 r a

ain www.txindokialkartasuna.net

gazte kutxa **txartela** **ekintza gehiago**



Hemen da, gure artean, **Gazte Kutxa Txartel** berria: **orain ahalmen, abentura, ekintza... gehiagorekin.** Izan ere, finantza-txartel osatuago baten abantaila guztiak izateaz gain, orain era guztietako **eskaintzak eta deskontuak** gozatzeko aukera ematen baitizu: zineman, bidaietan, kontzertuetan, garraioetan, saltegietan...

Gazte Kutxa Txartelak eskaintzen dizun guztiaren berri zuzena jakin nahi baduzu, sar zaitez **www.gazte kutxa.net** helbidean, edota, bestela, dei egiguzu Gazte Kutxako 943 00 12 40 telefono-zenbakira. Eta bera poltsikoan duzula, **beste inolako txartelen** beharrik ez.



gazte kutxa

Artaldeak herrian barna

Artzain eguna izango da urtean zehar antolatuko diren perr berezietatik lehena. Apirilaren 23an izango da eta egun berezi honetarako Udalak egitarau oparoa prestatu du. Esan beharrik ez asteazkenetako ohiko postuak hor izango direla Garagartza Plazan eta horiekin batera artzanitzarekin zer ikusia duten beste hainbat erakusketa eta postu. Gazta-salmentarako, salto-kiak, Goierriko artisautza produktuak, trikitixa, dultzainero eta abarrak ere ez dira faltako.

Goizeko 9etan aharri eta ardiaren erakusketa-lehiaketa izango da Enparantza Nagusian. 11tan transhumantzia, artaldeak pasako dira garai batean bezala herriko kaleetan barna. Ondoren Idiazabal Gaztaren denboraldiaren aurkezpen ofiziala egingo da udaletxean. Oraingoan Atxen Jimenez-ek ebakiko du gazta. Aldez aurretik, Mikel Zeberio gastronomoa omenduko dute eta gazta kalitate eta erregulartasunari dagozkien sariak ere emango dira.

Erakustaldiak jarraituz gazta nola egiten den erakutsiko digute Enparantza Nagusian eta eguerdian ile-moztaldi erakustaldia izango da Nikolas Lekuona Plazan. Ondoren, ardi enkateari hasiera emango zaio. Ordiziako elkarteek prestatutako arkumea eta ardia dastatzeko aukera ere izango da Enparantza Nagusian. Egun berezi honi amaiera emateko lehiaketa guztietako garaikurrak banatuko dira Enparantza Nagusian.

10.379.063 euro

Kopuru horixe izan zen joaneko plenoan 2003. urteari dagokionez onartutako aurrekontua. Horietatik 8 milioi pasatxo Udalak beraren gastuetarako dira, milioi eta erdi San Jose Zahar Etxerako, 166.000 Herri Antzokirako eta ia milioi bat euro Majori Kiroldegirako.

Baina zertan erabiliko ditu diruok Udalak? Domingo Unanue etxea eraberritu, herri-guneko hirigintza lanak amaitu, Kutxa zeneko eraikinean bulegoak egin, eguneko zentrua, Santa Ana eraikina bota aparkalekuak egiteko, haur-jokoak hobetu hainbat gunetan, Oiangü Parkean hobekuntzak, azokarako mahai berriak, Barrena ondarea balorean jarri, Ordiziako historiari buruzko txostena, Oreja-Apellaniz inguruan hirigintza lanak, turismo bulegoa, 12-16 urte bitarteko gazteentzat egitaraua prestatu eta parroki-etxea berritu.

Kirola

● **Rugbya:** Cadizeko Atletico Portuense taldea da ohorezko "b" mailara igo nahi bada gaingitu beharreko lehen arerioa. Igande honetan bertan jokatu zuten lehen partida Trebiñan eta itzulikoa jokatzera Puerto De Santa Mariara joan beharko dute apirilaren 27an.

● **Saskibaloia:** rugby eta futboleko gauzak nahiko ondo doazela esan badaiteke, ezin gauza bera esan saskibaloian. Maila desberdinetako taldeak jaitsiera fasean ari dira edota sailkapeneko behe postuetan daude.

● **Futbola:** preferente mailako taldea sailkapeneko erdiko postuetan dago oraintxe bertan, jaitsiera postuetatik gero eta urrutirago. Errejonial mailako taldeak, berriz, mailari



Korrika pasa da

Igandean eman zitzaion amaiera Iruñean Korrikaren hamahirugarren edizioari. Bi mila kilometrotik gora egin ondoren, Euskal Herri guztia hamar egunetan zeharkatu ondoren Nafarroako hiriburua jaialdi erraldoi honen lekuko izan zen. Ordiziatik apirilaren 6an igaro zen eta ia atzerapenik gabe gainera. Gauerdia gertu bazen ere, hurrengo eguna astelehena izanda ere jende andanak egin zion harrera euskararen aldeko lasterketari. Harrera egiteaz gain, korri egiteko sasoi onean dela jende asko ikusi zen gainera, asko izan baitziren Ordiziako 3 kilometroak korritu zituztenak.

Baina korrika egitea ez zen dena izan. Aurretik kilometro salmentari ekin zioten korrika batzordekoek eta nabarmen-tzen dutenez, inoiz baina erantzun hobea jaso da. AEKren premiez jabetuta 19 izan dira kilometroa erosi duten elkarte, erakunde edota taldeak. Honez gain tabernari, dendari eta lantegien laguntza ere oso ona izan da eta ezin ahaztu korrika laguntzaile pina erosiaz korrikari lagundu dioten horiek guztiak ere.

Argazkian ikus daitekeen bezala, herriko txikienek ere izan zuten Korrikan parte hartzeko aukera. Hauek ostiral goizean aritu ziren korrika. 6 eta 13 urte bitartekoek herriari buelta eman zioten elkarri lekukoa pasatuz eta haur hezkuntzakoak Joxe Miel Barandiaran Plazan elkartu ziren berauen korrika txikia egiteko. Eguraldia lagun giro polita izan zen.

Lerro hauek aprobetxatuz korrika batzordekoek eskerrak eman nahi dizkie era batera edo bestera Korrika 13n lagundu duten guztiei.

eustea lortu du. Jubenilak azken postuetatik irteten eta emaitza onak lortzen ari dira azken aldian eta kadeteak igoera lortze bidean doaz.

● **Atletismoa:** Juanito Rubio Donostian genuen martxoan pista estalian beteranoen Europako txapelketan. 6.ena izan zen 3.000 metroan (55 urtetik gorakoetan) eta postu bera eskuratu zuen 1.500ean. Bartzelonako maratonia 83 postua lortu zuen. Bestalde, Eñaut Gereñu, Eneko Agirrezabal, Odei Lopez (Euskadiko errekorra pisu jaurtiketan), Eñaut Insausti, Amaia Insausti, Gotzon Auzmendi, Maite Leturia, Amaia Azurmendi, Irati Larraza, Garazi Tapia eta Anartz Etxeberriak martxoan zehar lortutako postuak nabarmendu behar dira.

Aitor Calvillo

Kultur astea

Hil honen azkenean izango du kulturak bere lekua, ekin-tzaz beteta datorren astea ospatuko baita apirilaren 26tik maiatzaren 4ra. Zortzi egunetan makina bat ikuskizun antolatu ditu kulturako udal batzordeak, arlo eta gustu ugari-tako nahia asetzeko asmoz.

Larunbatarekin hasita, arratsaldean haurren pilota txapelketako finalak jokatu dira, apirilean zehar egiten ari diren kanporaketei amaiera ipiniz. Lau adin mailatako partidak izango dira jokoan. Gauean, berriz, Osinalde bertso sariketarako bilduko du arreta guztia, 31. edizioa jokatu-ko dute sei bertsolari gaztek afal ondoren.

Igande arratsaldean, apirilaren 27an, Ezkio-Itsasoko antzerki taldearen lanaren berri ezagutzeko aukera izango da. Astean zehar, gainera, mendiari buruzko ikus-entzutekoak, ipuin kontalaria eta bertso musikatuarekin gozatu ahal izango da. Egitarauan nabarmentzen den beste eki-

taldi bat herriko Amalur zurgintza tailerrak emango duen hitzaldi-erakusketa da, altzari zaharrak nola berritu daitezkeen esplikatu baitute Barretzeko emakume arotzek.

Maiatzeko lehen asteburuarekin haurrek hartuko dute ekitaldiak egiteko gidaritza. Larunbatean herriko eskolako umek antzerkia egingo dute, eta hurrengo igande arratsaldean Txindata musika eskolako ikasleentzat izango da txanda, tresna ugari joz prestatu duten kontzertuan.

Bestalde, argazki lehiaketa ere abian da. Kultur astea baino lehen aurkeztu beharko dira lanak udaletxean, eta horiekin denekin erakusketa atonduko da kultur etxean. Interesatuentzat kalean dira dagoeneko lehiaketarako arauak eta oinarriak.

Bertso saio bikaina Aztirin

Osinalde sarirako baliagarria zen Aztiriko elkartearen apirilaren 5ean egin zen bertso



Mus txapelketa

Hogeita bosgarren edizioan gaztetxoek jo zuten hordagoa. Mikel Asurabarrena eta Eresti Oiarbide 15 urteko neska-mutilak irten ziren txapeldun iragan martxoaren 29an, finalean Joxe Maiz eta Felipe Altuna mendean hartuta. Hirugarren Asier Agirrek eta Luis Alustizak osatutako bikotea geratu zen, Josu Elgarresta eta Mikel Osinalderen aurretik. Denera hogeitabi bikotek eman zuten izena. Kanporatuen artean zozketatu ziren saskiak Asier Irazustabarrena eta Jokin Muruari egokitu zitzaizkien.

afaria. Umore ederrean jardun zuten iragarrita zeuden sei bertsolariek, eta saio ona eskaini zieten Aztiri-baten egoitza bete zuten entzuleei. Amaieran, bi bertsolari aukeratu behar Gabiriako finalerako, eta Oihana Bartra bilbotarra eta Iñigo Izagirre itziartarra sailkatu ziren.

Aurreko kanporaketan, Idiazabalgo Axarin martxoaren 28an izan zena, Iñaki Apalategi beasaindarrak eta Beñat Lizaso azpeitiarrak erdietsi zuten finalerako txartela. Ordiziatik etorriko dira seikotea osatzeko falta diren beste biak.

Mendi irteera

Apirilaren 13an, igandearekin, egunpasa antolatu da Deba Garaian zehar. Arrasateko Udala auzoan hasiko da mendiko ibilbidea, Besaide igo eta Tellamendin barrena Aramaiora iristeko. Egun osoko irteera da; Gabirian goizeko 8:30ean da abiatzeko ordua, eta itzulera arratsaldeko 6ak alderako. Autobusez egingo da joan-etorria, eta antolatzen ari den Blanca Lopezi deitu behar dio joateko asmoa duenak lehenbailehen (943-886355).

Aimar Maiz



Korrika

Korrika 13 igandean herri barrutik pasa zeneko unea. Gabiriarrak asko egin zituzten kilometroak korrika euskararen alde.

Labur-labur

- **Autodeterminazioaren aldeko bilgunearen** hauteskunde-etarako kandidaturak babesteko agiria udaletxean dago, nahi duten guztiek sinadura ezar dezaten.
- **Euskal Herriko txirrindulari itzuliak** Aztiri eta Gabiriako bideak aparteko kolorez jantzi berri ditu. Kelme taldeko Francisco Cabello igaro zen bi portuetan lehenengo, tropeletik ihes eginda.
- **Goierriko bola ligako jardunaldia** udal bolatokian. Sailkapena: 1. Andoni Berasategi (46), 2. Bizente Guerra (45), 3. Iñaki Maiz (44), 4. J.M. Ugarte (44). 32 bolarik bota zuten.

PACK Gaztea 95€

*Pack-a:
sei hilabeterako
lentillak eta
likidoak*

Eskaintza berezia

*Pack
bakoitzeko,
agenda
elektroniko
bat opari*



Eskaintzaren balioa 2003/5/31 arte.

nobedadeak eguzkitako
betaurrekoetan



graduatuak

59

eurotik aurrera



MULTIOPTICAS

J.M. Barandiaran Enp. • Tel. 943 88 99 88 • **ORDIZIA**





Lan bertikalak S.L.

Kanaloia

Bajanteak

Fatxadak

Pintura

Teilatuak

Tximiniak

...

Tfnoa.: 605 712 018

Ezkurdiategi Etxea

ATAUN



SEMPERE KALEA. 7, 1. LOKALA BEASAIN

TLFNO. 943 887972 - FAX 943 888657

e-mail : barandi@barandiaranzeramikak.com





Berrikuntza Kale Nagusian

Jilimonetik hasi eta Benta Txiki artean, itxura berria izango du laster herriak. Beasaindik etorrita herri sarreran egiten ari diren lanei, herri gune guztian ibilgailuen abiadura gutxitu eta oinezkoiei ibilbidea errazteko egin behar dituzten obrak batuko zaizkie.

Jilimonetik herri sarrera bitarteko zatia Aste Santurako bukatuta egotea espero du Udalak. Otsailerako zegoen bukaera data jarrita. Eguraldi txarrak eta lanak egiten ari zirela hautsitako telefono kable batek ordea, bi hilabeteko atzerapena ekarri du.

Herri sarrera berriak ondo-ko itxura izango du. Jilimoneko biribilgunearen ondoren, fabrikarako dagoen bidegurutzean beste errotonda bat egingo dute. Hortik gora hurrengo biribilgunea Arizko-

rreta baino lehenxeagokoa izango da. Jilimonetik Arizkorreta bitarteko errepide zatian, eskuin aldean (Beasaindik gatzela) marra hori batekin bereiztuko da autoak aparkatzeko zatia.

Arizkorreta parean, futbol zelaira jaisteko egin dituzten eskailera berrien parean oinezkoentzako pasabide berria egingo dute. Espaloi parean geratuko zaie errepidea oinezkoiei eta ibilgailuek koska izango dute. Horrelako pasabideak ezarriko dituzte ondoko puntuetan: Mabiko zubi parean, Mediku etxearen parean, plazan, Mujika jatetxearen aurrean eta Zepai aurrean. Herri sarrera bitarteko pasabideak Aste Santurako egongo dira prest, gainerakoak, ondoren egingo dituzte.

Herriko bide nagusia berritzeko lanek Kiroldegi pare-

Udal hauteskundeak

Maiatzaren 25ean egingo diren Udal hauteskundeetara aurkeztu ahal izateko sinadura bilketa egiten ari da Indarzabal herri bilgunea. Indarzabalek herrian banatutako oharrean dio "sinadura hau ez da Indarzabalen aldeko botoa eskatzeko, beste alderdiek bezalaxe, udal hauteskundeetara joan ahal izateko baizik". Sinadura Udaletxean eman daiteke goizetan (8:30etatik 14:00etara, astelehenetik ostiralerara) eta arratsaldetan (16:00etatik 19:00etara, astelehenetik ostegunera). Sinadurak biltzeko epea apirilaren 15ean bukatuko da.

Eusko Alkartasunak eta Eusko Alderdi Jeltzaleak zerrenda bateratua aurkeztuko dute maiatzeko hauteskundeetara. Zerrenda burua, Antton Irizar oraingo alkatea izango da.

KZ gunea

Apirilaren 14tik maiatzaren 2ra, goizetan (9:00-13:30) egongo da zabalik. Apirilaren 22tik 28ra Nagusiweb ikastaroa emango dute (11:00etatik 13:00etara).

Gazta Eguna

Maiatzaren 4an ospatuko da Gazta Eguna. Urteroko moduan Euskal Herri osoko artzainak etorriko dira Idiazabala. Egun horretarako eta aurreko asterako ekitaldi ugari antolatu dituzte (informazio gehiago 25. orrialdean).

Mendi irteera

Apirilaren 27an, Ibilaldien ibilaldia lehiaketaren baitan Araotz-Degurixa-Andarto ibilaldia egingo da. Irteera goizeko 8:00etan izango da.

Kontzertua

Musika Eskolak antolauta, Hondarribiako Musika bandaren kontzertua izango da maiatzaren 9an Pilarreneako plazan, 19:00etan.

Hitzaldia

Kutxak antolatuta jubilatei eskainitako "tele asistentziari" buruzko hitzaldia egongo da maiatzaren 6an, arratsaldeko 6:00etan.

an dute jarraipena. Bertan, bi-dearen erdia hartzen duen jardina egiten ari dira. Ibilgailuei bidea estutuz abiadura murriztea da helburua. Zelatik gora bidea asfaltatuko dute. Mojen konbentura arte gasa bideratzeko egin ziren lanen ondorioz kaltetutako al-

dea konponduko dute eta Konbentutik Benta Txikira arteko zatia oso-osorik asfaltatuko dute.

Lanak bi fasetan egingo dituzte. Obra batzuk egiterakoan errepidea erabat itxi beharko dute.

Xabier Urteaga

Iñautsi
HORTZ KLINIKA
ESTIBALIZ JUAREZ ALDANONDO
602 Zbñ. KOLEGIATUA
RADIOGRAFI PANORAMIKO ETA ZEFALOMETRIAK
ODONTOLOGIA OROKORRA: HAUR ETA HELDUAK
JOAN ITURRALDE, 3 BEASAIN ☎ 943 88 46 28

JOAKIN ALDANONDO GARAJEA
MICHELIN zerbitzu ofiziala
Gurpil lanak, alineazioa, aluminiozko llantak
filtroak, olioak, engrasea
frenu pastilak, tubo eskapeak, bateriak
harezko txorrotadak
Errota Poligonoa IDIAZABALgo sarreran ☎ 943 18 72 57



'Indartuz aurrera' herri ekimena

Joan den martxoaren 30ean herriko liburutegian aurkeztu zuen bere burua 'Indartuz aurrera' izeneko herri plataformak. Ekitaldi xume baten bidez, "demokrazia gabezia, justizia gabezia, Batasuna lege zkanpo uztea eta ezker abertzalearen ideologia eza-

batu nahi izana" salatu zuen herri ekimen honek.

Plataforma hau adin ezberdinetako herritarrek osatzen dute eta hiru ditu helburu nagusiak: autodeterminazioaren alde lan egitea, Euskal Herriak bizi duen eskubide demokratikoen gabezia sa-



latzea, eta ezker ikuspegitik esparru sozial, politiko nahiz kulturalen Ezkio Itsasoren alde lan egitea.

"Herriak duelako eraba-

kia eta herritarren esku da-goelako etorkizuna" 'Indartuz aurrera' plataformak herritar orori dei egiten dizue indarrak batu eta elkarlanean aritzeko.

Giro ona Korrikan

Igandean, apirilak 6, iritsi zen gure herrira 2003.urteko Korrika. Hain zuzen, Irizar lantegiaren parean hartu zuten herritarrek lekukoa. Bertatik abiatuz herritarrok aurtengoan erosiako lau kilometroak bete zituzten. Aurtengoan Irizar, Udala, herriko plataforma eta Barduliarrak elkarteak izan dira kilometroak erosi dituztenak. Korrika laguntzaileak berriz herriko dendarri, lantegi eta tabernariak izan dira.

Irizar lantegiko bidegurutzean hartu zuten Ormaiztegi-ko herritarrok lekukoa. Bertatik Euskadiko Kutxaraino bete zuten lehen kilometroa, Irizar lantegikoek burutua. Ja-

rraian Mutiloarako bidea hartu zen. Aipatu ibilbidearen zati batean Gorka Izagirre eta Egoitz Berasategi herritar txirrindulari txapeldunek eraman zuten lekukoa.

Aurreko edizioetan bezala, aurtengoan ere korrikaren inguruan hainbat ekitaldi egin ziren horretarako osaturiko batzordeak bideratuta. Ekin-tza horiek bi asteburuetan egin ziren. Lehenengo asteburuan, larunbatez, herriko enparantzan Korrika 2003 mus txapelketa herrikoia, haurrentzat jokuak eta txokolatada ospatu ziren. Mus txapelketa giro bikainean jokatu zen. Irabazleak Aitor Abasolo eta Daniel Lerma izan zi-

Egur taila ikastaroa

Lehenengo aldiz antolatu zen egur taila ikastaroak izan zuen arrakasta kontuan izanik, eta herritarren eskaerei jarraituz, bigarren egur taila ikastaroa antolatu da. Ikastaroari hasiera apirilaren 15ean, asteartea, emango zaio eta hiru hilabeteko iraupena izango du. Ikastaroa astean behin, asteartean, egingo da kultur etxean, lehengo mediku kontsultorioa zen aretoan. Egun bakoitzean bi ordu eta erdiko iraupena izango du, arratsaldeko 18:30etatik 21:00etara bitartean. Aipatu ikastaroan parte hartu nahi duzuenok izenak Udalean eman behar duzue apirilaren 14a bitartean. Ikastaroarengatik ordaindu beharrekoa 30 euroko diru kopurua izango da.

ren, bigaren saria Iñigo Azpiaz eta Andoni Mendizabalek eraman zuten, hirugarrena berriz Gisasola eta Mujikak, laugarren postua Aitor Sagarna eta Andoitz Arzelusek lortu zuten.

Bigarren asteburuan, berriz, korrikaren iritsiera ospatzeko hainbat ekitaldi egin ziren. luntzeko 19:00ak aldera herriko tabernetan zehar poteo herrikoia egin zen, herri-

ko trikitilariak alaituriko giroan. Euskara bitarteko hartuz egunkariarekin ere bat egin zen, eta herriko gune batzuetan egunkariaren kamisetak salgai jarri ziren.

2003ko korrikaren antolaketan lagundu izan duzuen guztiek jaso ezazue lerro hauetatik batzordekideen izenean eskerrik beroena.

Aitziber Murua

PSIKOLOGI KLINIKOA



Jose Ramon Pato Prieto

Psikologian lizentziatua

Elkargokide zenbakia: E-2644

RPS: 42095

JM Arana, 1 - 2. esk. esk.

Helduen, umeen, bikoteen eta sexologi tratamenduak

AURRE ZITA

☎ 943 887 221

☎ 610 020 041

BEASAIN



GENERALI
Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20
☎ 943 88 87 02
BEASAIN



Korrika herrian

Apirilaren 6an, igandea, iluntzeko bederatziak eta laurdean pasa zen guretik Korrika. Ormaiztegi aldetik sartu zen, Lierni jaitsi eta Mutilotik pasa ondoren, Segura bidea hartu zuen. Arrakastatsua izan zen jendearen partaidea aldetik, herritar ugari parte hartu baitzuten, eta he-

rriko kaskotik pasatzean, korrikalariak animatzera ere jende ugari bildu zen bidearen alde banatan. Hitz bitan esateko, giro bikaina sortu zen herrian eta korrika egiteaz gain, euskarari babesa eta bultzada emateko erakustaldi paregabea izan zen.

Inaki Ugalde

Kz Gunea

Informatika eta ordenagailuen mundua ezagutzeko ikastaro mordoak egiteko aukera egon da Kultur Etxean, urtarrean hasita. Ikastaro hauetan adin desberdinetako herritarrek parte hartu dute. Ikasitakoa mantentzeko eta pixkanaka-pixkanaka sendotzeko, Kultur Etxea ordu batzuetan irekita egongo da, eta ordenagailuak erabiltzeko aukera egongo da. Ordutegia honakoa izango da: asteartea eta ostegunetan: 9:30etik 13:00etara. Asteazken eta ostiralean, 16:30etik 20:00etara. Larunbatetan 9:30etik 13:00etara.

Ordenagailuen gela ibiltzeaz gain liburutegi zerbitzua ere martxan egongo da. Bide batez aipatu, apirilean egun bakarreko mintegiak egiteko asmoa ere badagoela. Mintegi hauetako gaiak oso desberdinak izango dira: Kutxanet, Euskal Herria ezagutzeko nahiz ordenagailua programatzeko ikastaro laburrak. Informazio zehatzagoa emango da eskutitz bidez.



Aste Santua

Dagoeneko Aste Santuan bete betean sartuta gaude, eta gurean antolatutako ospakizunak honako hauek dira:

- Prestaketa hitzaldiak antolatu ziren apirilaren 10, 11 eta 12an, Apaiz etxean.
- Elizkizunen ordua berriz honakoa da:
Ostegun Santua: arratsaldeko 8:00etan.
Ostiral Santua: arratsaldeko 15:30ean.
Zapatu Santuan: arratsaldeko 8:00etan.

Mus Txapelketa

Martxoaren 29an jokatu zen Ostatur urtero antolatu ohi den mus txapelketa. Patxi eta M. Arruabarrenak osatutako bikoteak irabazi zuen, eta bigarren postuan Martin eta Erkuden Agirre geratu ziren.

Heriotza

Martxoaren 16an hil zen 48 urterekin Mujika jatetxeko Jose Luis Mendizabal.



Bide On zine kluba

Bide On zine klubak antolatutako hurrengo zine emanaldia, apirilaren 21ean, astelehenean, izango da. Ohi bezala, gaueko 10etan, Ertoixen. Eskainiko den filma, 'Harry el sucio' izango da.

Urkiko jaiak

Datorren maiatzaren 3an eta 4an ospatuko dira maiatzeko Urkiko jaiak. Egitaraua oraindik zehazteko badago ere, eguna gerturatu ahala jakingo duzue kartelen bidez.



GESTORIA Biok
Errenta
aitorpenak
egiten dira

Goierri, 12
behea
ORDIZIA

943 88 44 00
943 88 12 58



aulia
TOLARE
SAGARDOTEGIA

Aulia-enea
943 80 60 66 **LEGORRETA**

Bi napar garaile mus txapelketan



Mus txapelketako finalistak.

Irañetako Rober Leza eta Asier Lakuntzak irabazi zuten Zubi-buru elkarteak martxoaren 29rako antolatu zuen 28. Mus txapelketa azkarra, Manuel Mendizabal eta Jambier Jauregi mendean hartu ondoren. Aipagarria da, lehen zortzi postuetan Zaldibiko sei bikote gelditu zirela: Arkaitz Aranburu eta Txema Mendio- la hirugarren, Joxe Gorostiza eta Joxe Benito laugarren,

Eneko Aristi eta Julen Mari-juan eta Mila Etxeberria eta Mila Erauskin.

Deialdia berezia egin zen aurtengo txapelketarako, izan ere, Egunkariaren aldeko musa izan baitzen aurtengoa. Hala ere, ez zen iragarri be- zain beste jende etorri, baina parte hartzaile kopurua tama- naikoa izan zen, 116 bikote, horietatik 37 zaldibitarrak.

Saturdiko festa, apirilaren 21ean



Pazko bigarrenetan ospatuko da beste behin Saturdi auzoko festa. Ez ditu bere garai onenak bizi fes- ta honek, azken urte- tan Udalaren bultza- daz eta zenbait herri- tarren laguntzaz mantendu baita bizi- rik. Hori dela eta, au- zotarrei dei berezia egiten zaie egun ho- rren antolakuntzan parte har dezaten. Azken ordukorik ez

bada, aurten erroskila saltzailerik izango da karta eta guzti. Hauxe da egun horretarako prestatu den egitaraua:

Goizeko 11:30ean: Meza nagusia Saturdiko Baselizan.

Mezaren ondoren, auzoko emakume eta gizon zaharrenei opari bana emango zaie. Ondoren haurrentzat jokuak.

Eguerdian, Joxe Agirre eta Imanol Lazkano bertsolariak eta trikitilarien saioa.

13:00etan, auzotarren arteko Toka Txapelketa

14:30etan, bazkaria (entsalada epela, ardiki gixatua, gazta eta menbriloa. Txartelak salgai daude Illati tabernan

Bazkalandoan Joxe Agirre eta Imanol Lazkano bertsolarien saioa.

Arratsaldeko 5:30ean: Herri Kirolak: aizkoran, Azurmendi eta Nazabal, eta Ostolaza harrijasotzailearen saioa

Ondoren, trikitilariekin erromeria.

Edurne Soraluze

mazda
Bikar, S. A.



☎ 943 889 296 Faxa: 943 887 952
N-1 errepidea, 419 Kma **BEASAIN**

iB&i-ONDO
AROZTEGIA

Koltxoak
Somierak



Sofak,
altzari mazizoak
haritzezkoak,
gerizezkoak,
gastainondoak

multisac
— SYSTEM —

☎ 943 16 40 40 faxa: 943 16 47 47
Poltsikoko telefonoa: 639 631 640
Antzizar-Katea, 5 **BEASAIN**



MUJICA
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19
☎ 943 88 11 94
ORDIZIA



GOIERRI LANBIDE ESKOLA

bulegoa@goierrieskola.org
www.goierrieskola.org

24 Posta Kutxa
☎ 943 88 00 62 / 66
Faxa: 943 88 83 51
ORDIZIA



2003/2004 IKASTURTERAKO ESKaintza

IZEN EMATEA:

BATXILERGOA: maiatzaren 2tik 9ra
LANBIDE HEZIKETA: ekainaren 2tik 11ra
Ikastetxeko bulegoetan goiz eta arratsaldez


ZATOZ BATXILERRETIK

BATXILERGOAK

- BATXILER TEKNOLOGIKOA
X INGENIARITZA ETA UNIBERTSITATERA
BIDERATUA
- X GOI ZIKLOETARA BIDERATUA

ERDI MAILAKO LANBIDE HEZIKETA

- MEKANIZATUA
- ERAIKUNTZA METALIKOAK
X GALDARAGINTZA
X SOLDAKETA



GOI MAILAKO LANBIDE HEZIKETA

- ADMINISTRARITZA ETA FINANTZAK
- PROIEKTU MEKANIKOEN GARAPENA
- MEKANIZAZIO BIDEZKO PRODUKZIOA
- ERAIKUNTZA METALIKOAK
- INDUSTRIA EKIPOEN MANTENIMENDUA
- ERREGULAZIO ETA KONTROL SISTEMA
AUTOMATIKOAK
- TELEKOMUNIKAZIOAK

INGENIARITZA BARNE



GUZTI HAU 'GOIERRIKO HERRIEN EKINTZA' FUNDAZIOAREN BABESEAN,
BAILARAKO UDAL ETA ENPRESEN PARTAIDETZAREKIN.

GAINERA ZERBITZU OSAGARRI HAUEK IKASLEEN ESKURA IZANGO DIRA:
GOIKERRI (Zerbitzu Teknologikoa)
IKASLAN (Lan Praktiken Tailerrak)
LAN BOLTA (Gaurkoz enpleagarritasuna % 100)





SAN BENITO IKASTOLA

Euskadi enparantza z/g
E-mail: lazkao@ikastola.net
www.sanbenitoikastola.net
Tel. 943 88 08 00 / Fax 943 88 18 18
20210 LAZKAO

"Europear kalitate kudeaketa sistemaren" araberako kudeaketa • Gestión según el modelo EFQM

Batxilergoko aukerak:

Giza eta gizarte zientziak
Natur eta osasun zientziak

Izen-emate epea: maiatzaren 2tik 10era



Haur eskola



Haur eta Lehen hezkuntza

DBH eta Batxilergoa



Teknologia berrietara egokituak gaude (internetera lotura gela guztietan)

Trinity College Londoneko azterketak bertan egiteko aukera.

Bailarako herrietatik garraioa.

Giza formazio zabala.

Irakaskuntza, orientazio akademiko eta profesional pertsonalizatuak.

Heziketa mailan eta akademikoki emaitza bikainak.

Aintzakotzat hartzen zaitugu.

Zure etorkizunaz arduratzen gara.

LAZKAON EGINDAKO GAZTA

Ixidro Sukia
659 043 773
Bordaberri Artegia
LAZKAO

Olain Irizar Espainiako arrantza txapelketan

Aspalditik dator gazte hau arrantzarako bere dohaiak erakutsiz. Orain gutxi Euskadi mailan lehena izan bazen ere, aurretik Gipuzkoan 2. izandakoa dugu. Azkeneko txapelketan lehena geratu zenez, orain, Espainia mailan egiteko aukera izango du. Hau apirilaren 23an hasiko da Jakan. Lehenbizi kontzentrazio moduko bat izaten dute, bai arrantzaleak ezagutzeko eta baita arauen berri emateko ere; zein errektan arrantzatza egin daitekeen...normalean; Biescas, Anson, Puente la Reina.

Lehenengo eguna, beraz, afari batekin bukatzen dute. Txapelketa honek 27 arte iraungo du, eta finala orduan izango da.

"Dagoeneko zaila bada txapelketa honetan sartzea, pentsa nola beharko duen izan finalera iristea", dio irribarrez.

Denera 24 edo 26 lagun izango dira lehia bizian eta modalitatea 'cola de rata' izango da. Espainia mailan ere lehendik parte hartu du, baina klub mailan, Aitz-zorrotz elkartearekin. Hemen 2. geratu ziren.

Hala ere ez da lazkaotar bakarra mundu honen ba-



rruan sartua dena: Juan Pablo, Luis Ruiz eta Juanjo Sanz ere ezin aipa gabe utzi. Azken hau izan da Olainen maixu eta ez da ez gutxiagorako. Juanjok mundialean parte hartzeko aukera izan du eta baita 3 aldiz irabazi ere. Mundialera joateko Espainiako txapeldun edo lehen 5 postuetan geratu behar da.

Txapelketa alde batera utziz, beraien meritu hauek guztiak zein nolako trebezia eta lana behar duten azaltzeko erakusketa moduko bat jartzen zuten udaletxean.

Hauen lana eskertzea besterik ez da geratzen eta Olaini surete ona opa diogu eta ea garaile geratzen den, Lazkao-gar festak galtzen dituenez...

Odol emaileak:

Joan zen hilaren 24 an etorri zen Gipuzkoako odol emaileen elkartea. Tokia ere berria izan zuten udaletxeko gela haundi batean egin baitzen. Ateratze dwnak oso onak izan ziren eta guztira 140 pertsonak parte hartu zuten, horietatik 55 Lazkao-koak. Oraingo honetan oso gustora geratu ziren gazteen partaidetza handia izan zelako. Hemendik gutxira beste emanaldi bat izango da. Beraz, eta lerro hauen bidez, odola eman nahi duen edonori ateak zabalik dituela jakinarazi.

Korrika

Beste urte batez Lazkaotik korrika pasatu zen joan zen igande gauean. Ordua jarria bazegoen ere ordu laurdeneko atzerape-narekin iritsi zen. Jendetza asko bildu zuen ekitaldi honek, kontutan edukiz ze ordu zen eta hurrengo goiza lan eguna zela ikusirik. Erantzuna, beraz, oso baikorra. Testigua ere zenbait herritarrek eraman zuten ibilaldi guztian zehar eta honela banatu ziren lanketa guztiak. Hasteko Udaletxearen eskutik Felix Urkola alkatea izan zen, ondoren PNV eta EAren aldetik Kepa Goenagak, honen jarraian Maizpide parean, Euskaltegian ikasten ari den flandiar batek eraman zuen. Ondoren Olatz Madariagak hartu zuen testigua eta Ezker Abertzalearen eskutik Argider Mujikak eraman zuen. Lazkaoko talogileak ere parte hartu zuten eta hurrenak izan ziren eramaten, Balentin eta Mila Aldasororen eskutik. Bukatzeko eta Lazkaotik azkenak, Ixi eta Benito izan ziren testigua Ordizi aldera eramaten.

Herriaren sarreran txarangak egindako ongi etorria izan genuen hizpidetako bat. Herriari bizi pixkat ematearren hasi ziren abestiak jotzen eta korrikari ere hurrengo urtera arte agurtuz bukatu zuten.

Ezin ahaztu gabe utzi lan honen inguruan parte hartu duten guztiei. Beraz denei ere eskerrak eman.

Korrika txiki

Beste hainbesteko arrakasta izan zuen Korrika txikiak apirilaren 2an. Eguraldiak lagundu ez bazuen ere, ume asko eta asko bildu zen plaza inguruan, antolaturik zeuden joko guztietan parte hartzeko asmoarekin. Beraientzako ere peto batzuk atera zituzten korrika egiteko. Beraz, egun borobila izan zuten.

Kultur ekintzak

Goierriko Euskal Eskolak antolatuta, **apirilaren 23an**, asteazkena, liburu eguna ospatuaz, liburuek %10eko deskontua izango dute Gerriko Liburudendan.

Apirilaren 25ean, ostirala, arratsaldeko 5etan, San Prointziotako eranskailuaren aurkezpena egingo da Gerriko Liburudendaren aurreko aldean.

Aitor Tello

Josu Sarriegi Alaveseko lehen taldean



Ekainaren 30etik aurrera Alaveseko lehen taldearekin jokatzeko aukera izango du. Jakin badakigu denboraldi hau Eibarren aritu dela, baina berezko fitxa Gasteizen du Alaves B taldetik utzia baitzegoen. Eibarren urte bete aritu da ikasteko asmoz eta maila ezberdin batean jardun da denboraldi honetan. Bere lanak ondo eginak dituela ikusiz lehen mailako kontratua egin diote. Dena ondo joateko bi betebeharrak geratzen zaizkio: orain dagoen taldea mailaz salbu utzi eta hurrengo denboraldian bere taldea izan behar duenak mailari eustea, nahiz eta azken hau ez bere esku egon.

Erlezain eguna, arrakastatsua

Eguraldia lagun, egun goxoa izan zen apirilaren 6an Zegaman.. Goizean, txozna eta bertako produktuek postuak martxan jarri ziren etorriko zen jendearen zain eta Segurako talogileak ere dena prestatu zuten. Udal Kiroldegian Gipuzkoako V. Ezti lehiaketara Gipuzkoako 24 ezti hoberenak aurkeztu ziren(aurrez 8 lehiaketetan erabakiak). Ezti lehiaketako epaimahaian, Euskal Unibertsitateko bertako erlearen genetikan lanean ari diren bi tekniko, Isabel Telleria eta Antonio Gomez Pajuelo erlezain ezagun eta famatuak aritu ziren. Azkenean honako hauek suertu ziren garaileak:

Lorebakarrean: Ageda Zerberio, Segurakoa.

Loreanitzetan: Haritz Haitzbitarte, Urnietakoa.

Eztiz eginiko II.Postre Lehiaketara 15 postre aurkeztu ziren zein baino zein hobekak eta azkenik, Donostiako

Luis Irizar Eskolako Leire Bonailek irabazi zuen eta bigarren saria, Zarauzko Ayala Eskolako Fernando Piñeiro eta Maiko Calderonek irabazi zuten.

Erlezain Elkartek antolatutako I.go Argazki Lehiaketa berriz, Julen Sainz Dallo irabazi zuen.

Azkenik, Gipuzkoako gozogile hoberenek, Zegamako Zegama okindegia, Ordiziako Unanue Gozotegia, Hernaniko Adarraga Gozotegia, Hon-



Jende ugari hurbildu zen Erlezain Eguna. Irudian, Josune Bereziartu, Rikar Otegi eta Gorrotxategi gozogilea ageri dira.

darribiko Hawai Gozotegiak beren erakusketa ipini zuten, jendeak beren produktuak ikus zitzaizen eta azkenean,

lehiaketara aurkeztutakoekin batera bertaratutako jendearen artean banatu ziren:

Bestalde, Gipuzkoako Erlezain Elkartek, erlekumearen bilketa antzeztu zuten, bertaratuek teknika hau ezagutu zezaizen eta aldi berean, urtero erlezain bat omentzeko duten ohituraren barnean, aurtengoan, Joxe Albizu zegamarra omendu zuten, eta Zegamako udalak ere aurreku eta oroigarri bat eman zion. Azkenean bazkari herriko baten bidez bukatu zen eguna.



Obrak

Ostatu aurreko obrak bukatu dira, eta ondorioz, lehen zegoen oinezko eremua handitu da Zegamako herrigunean, bertako biztanleen bizi kalitatea hobetuz. Bestalde, apirilaren 7ko osoko bilkuran, Olan auzoko berrurbanizazioa egiteko adjudikazioa egitea erabaki zen eta kasu honetan Teide enpresari eman zaio.

Plazako kioskoaren teila-tua ere erabat eraberritu da. Bestalde, Txarape aldeko lurrazpiko garajeen obrak eta Intxaustiko zubiarenak ere martxa onean doaz aurrera.

Etkez etxeko laguntza bermatzeko erabakia

Udalak, 2003ko apirilaren 7an egindako osoko Bilkuran, Gizaintza enpresa kontratatzea erabaki zuen, herrian etkez etxeko laguntza emateko. Esan, orain arte, lan horretan ari diren zegamar langileak enpresa honek hartuko dituela, eta ondorioz, hauen lan baldintza hobetzea lortu dela erabaki honen bidez.

XIX. Santa Kruz froga

Apirilaren 5ean, Kkadeteen mailako XIX. Santa Kruz Froga egin zen Zegaman, Elkartu Nahi Txirrindulari Elkartek antolatuta. Garailea Joseba Iziar Zabaleta izan zen, Ulma taldekoa. Aipatu lehen sei korrikalariak denbora berrean sartu zirela eta oso lehiakorra izan zela azken saioa: Lehen seiak 1:19:54ko denbora behar izan zuten. Sailkapena:

- 1.- Joseba Iziar: 1:19:54
- 2.- Gorka Izagirre: 1:19:54
- 3.- Jon Lazkano: 1:19:54

- 4.- Aritz Ugarte: 1:19:54
- 5.- Xabier Barrante: 1:19:54

Jubilatuen urteko kuota

Zegamako Jubilatuen Elkartek urteko kuota kobratzeko beren bazkideei eguna eta ordua jarri dira, era ordenatu batean lan hori egin asmoz. Ordainketa egiteko egunak apirilaren 29 eta 30 izango dira eta ordua, arratsaldeko 17:00etatik 19:00etara elkarrean bertan.

Eduarne Albizu

Abian da euskara biziberritzeko plan nagusia

Udalerriko esparru eta maila guztietan euskararen erabile-
ra indartzea eta areagotzea
helburu duen Euskara Bizibe-
rritzeko Plan Nagusia onartu
du Beasaingo Udalak. Plan
honek euskararen normaliza-
zioan diharduten herriko era-
kunde, enpresa, herriko elkar-
te, ikastetxe eta bestelakoen
elkarlana hobetzeko bidea
eragingo du eta era berean,
euskaraz bizitzeko aukera
bermatuko die herritarrei.
Horretarako, 3 urteko iraupe-
na izango duen plan strategi-
koa eta berau garatzeko aur-

tengo kudeaketa plana egin
dira Eusko Jaurlaritzako
HPSren gidaritzapean. Plan
estrategikoa jasotzen duen
dokumentua herriko gizarte-
eragileei helarazi zaie beren
ekarpenak egin ditzaten.
Guztira 18 partaide izango di-
tu Aholku batzorde horrek.
Batzorde horren egitekoak
izango dira, beraz, udalerrian
euskararen erabilera normali-
zatzeko lanekin zerikusia du-
ten gaiak aztertzea eta bideak
proposatzea.

Nekane Altuna

Txosna batzordearen bilerak

Beasaingo jaietako Txosna batzordea astelehenero bilduko da,
20:15ean, udaletxeko batzar aretoan.

Igartzako indusketa arkeologikoa

Apirilaren 15ean, arratsaldeko 7etan, udaletxeko batzar-aretoan,
Igartzan egiten ari diren indusketa arkeologikoen aurkikuntzaren
inguruan argibideak emango dituzte. Aranzadi Elkarteko Juan-
txo Agirre, Gipuzkoako Foru Diputazioko ordezkari bat eta Be-
asaingo Udaleko ordezkari bat izango dira bertan.

Sukaldaritza ikastaroa

Asmube Elkartek antolatuta sukaldaritza ikastaroa hasiko da
apirilaren 30ean. 'Jaiegunetako Menua' izango dute ikasgai
Marta Imazen eskutik.

Erretiratuen mendi irteerak

Gizarte Ongizate Sailak antolatuta eta Aitzgorri Mendizale El-
kartea eta Gurutze Gorriaren laguntzarekin irteera desberdinak
egiten dituzte Beasaingo Erretiratutek. Hurrengo irteera apirila-
ren 26an izango da, Lizarrutzi-Lareo-Enirio-Lizarrusti ibilbidea
eginaz. Izenemateak aurrez egin behar dira Erretiratuen Etxeko
dinamizatzailearen bulegoan 3 euro ordainduta.

VII. Udaberri Gaztea

Asteburu honetan eman zaio amaiera gazteei zuzenduriko Uda-
berri gaztea osatu duten ekitaldi desberdinei. Musika izan da ba-
tez ere protagonista. Diskofesta izan zen apirilaren 5an Joseina
Etxeberriarekin eta makrokonzertua apirilaren 12an, Dogma de
fe, Itaca eta Sexy Sadie taldeekin.



EAJ-EA koalizioa aurkeztu da

Maiatzaren 25eko udal hauteskundeetan aurkezteko, EAJ
eta EA alderdiek koalizioa osatu dute. Apirilaren 8an egin zen
aurkezpenean. Patxi Plazaola (EAJ) izango da alkategaia. Bere
alboan izateko prest daudenak dituzue jarraian: Pello Garaial-
de (EA), Arantxa Aseginolaza (EAJ), Imanol Aranburu
(EAJ), Jose Martin Aldaregia (EA), Jon Olano (EAJ), Jose
Antonio Ibaibarriaga Usabiaga (Independentea-EA), M.Luisa
Valles (Independentea-EAJ), Aitor Aldasoro (EAJ) eta Ana
Asla (Independentea-EAJ).

Ibarretxe lehendakariaren bake plana garatzea, elkarbizitza
indartzea, aniztasunaren alde eta konfrontazio eta inposizio-
aren aurka, Beasainen alde, alaitasunez, zorroztasunez eta era-
ginkortasunez lan egingo dutela zehaztu zuten hautagai ze-
rrendaren aurkezpenean.



'Igartzatik...' plataforma udal hauteskundeetara aurkeztuko da

Otsailean aurkeztu zen 'Igartzatik...' herri plataforma, maiatza-
ren 25eko udal hauteskundeetan aurkeztuko dela iragarri zuen
apirilaren 4an. Mikel Olano, Kuki Lasa, Iñaki Apalategi, Ene-
ko Bueno eta Bobe Mujikak osatzen dute plataformaren ze-
rrendaren lehen 5 postuak.

Hori bai, hauteskundeetan aurkeztu ahal izateko, 500 bea-
saindarren sinadura behar da jaso. Apirilaren 16ra arte, Nota-
rian eta Udaletxean eman liteke aldeko sinadura. Aurkezpene-
an adierazi zuten, 'Igartzatik...' plataforma "autodetermina-
zioaren aldeko plataforma gara, gizarte justu baten aldekoa,
bakearen aldekoa, Euskal Herriaren aldekoa. Igartzatik... he-
rri plataformak indar aktiboa izan nahi du Beasainen, aber-
tzalea eta aurrerakoia den indar aktibo bat".

EHNA Ataunen. Noiz eta non?

Aurreko zenbakian adierazten genizuen eran EHNA (euskal karneta) ateratzeko aukera zabalik dugu herrian, Ataungo Bai Euskal Herriari taldearen ekimenez. EHNA (Euskal Herriar Naziotasun Aitormena) eskuratzeko interesa duzuenok, herriko auzoetan tramiteak bideratzeko aukera izango duzue orain hasi eta datozen hilabeteotan.

San Martinen asteazken eta ostiralean arratsaldeko 6etatik 8etara, zine ondoko lokalean.

San Gregorion asteazkenean arratsaldeko 6etatik 8etara eta larunbatetan goizeko 11etatik 1etara, Artadi gaineko lokalean.

Aian, larunbatetan goizeko 11etatik 1etara, Aitzarri elkartearen.

Euskal Karneta eskuratzeko beharrezkoak, berriz, honakoak:

3 argazki, errolda ziurtagiria (Udaletxean eskuratu ahal

izango duzuna) eta 12 euro. 45 egunen buruan jaso ahal izango duzu zure EHNA.

Zuzenketa

Aurreko zenbakian ekimen honi buruzko informazioa eskaintzerakoan egindako hutssegitea zuzendu nahi nuke, bide batez. Ataunen ekimen hau aurrera ateratzeko emandako pausoak, gaizki ulertu baten ondorioz, alderantziz adierazi nituen eta hori zuzentze aldera tarte hau aprobetxatu nahi nuke. Jarraian hitzez-hitz arduradunek eginiko zuzenketa. Mozio bat Udaletxean sartu zen Ataungo elkarte guztien atxikipenarekin. Mozioa ez zen onartua izan, gai hau *"beren konpetentziaz kanpo"* gelditzen zela argudiatuz eta honen ondorioz, Ataungo Bai Euskal Herriari taldeak bere gain hartu du EHNA tramitatzea Ataunen. Barkatu gaizki esanak.



2003ko Atsedeen-Tokiko jokotako emaitzak

Jarraian Atsedeen-Toki elkarteak aurtengorako antolatu jokotatik irabazle suertatu direnen zerrendak.

Bote txapelketan: Nikolas Kaiero irabazle eta Luis Rezola eta Joxe Rezola 2 eta 3. postuetan.

Zapo txapelketan: Bittoriano Lizarragak irabazi zuen. Jarraian Benito Arruabarrena eta Jazinto Begiristain gelditu ziren.

Tokan: Sebastian Auzmendik eskuratu zuen lehen saria. Inazio Garmendia eta Joakin Aldabek 2 eta 3. postuak.

Mus txapelketan, Lau erregetara: Lehenengo postuan Joxe Munduate eta Juanito Auzmendik osatutako bikotea. Joxe Etxeberria eta Luis Rezolak osatua 2. postuan. 8 erregetara: Bi emakumezkorentzat lehen saria, Rufina Urbiztondo eta Ana Mari Crespok osatu bikotearentzat. Joxe Etxeberria eta Joxe Agirrarentzat 2. postua.

Seiko urrean: Joxepa Etxeberria eta Antonio Goikoetxeak eskuratu zuten lehen saria. Ondoren, Rufina Urbiztondo eta Ana Mari Crespo.

Tutean: Antonio Goikoetxea eta Joxe Rezola suertatu ziren garaile. Azpitxapeldun berriz, Inazio Etxeberria eta Jazinto Begiristain.

Eskoban: Joxe Imaz eta Inazio Garmendiak osatu bikoteak irabazio zioan Olatz Guridi eta Pili Barandiaranek osatutako bikoteari.

Azkenik **Punttuan** Joxe Mari Aldasoro eta Bittoriano Lizarragak osatu bikotea atera zen txapeldun. Jarraian, Martin Aldasoro eta Rufina Begiristain.

Ataungo Herri Bilgunearen sinadura bilketa udal hauteskundeetan parte hartzeko

Ataundarrok Herri Bilguneako kideek *"Ataun eta ataundarrron alde lan egiteko konpromezua hartu"* eta datorren maiatzean ospatzekoak diren udal hauteskundeetara aurkezteko erabakia jakinarazi berri digute. Horretarako eta, legediak jarritzen dituen betebeharren artean, herritarren sinadurak bildu beharrean dira. Sinadura bilketarako 3 egun izendatu ditu bilguneak. Honen harira *"sinadura ematen duenak Ataungo herri Bilguneak hauteskundeetara aurkezteko eskubidea duela adierazten duela soilik, beraz, herritar guztiak, baita gure boto emale izango ez direnei ere deitzen diegu"* la gogorarazi nahi dute bilgunek. Eta deialdia egiten dute ostegun honetan, apirilak 10, ostiralean, apirilak 11 eta larunbatean, apirilak 12, Ataungo udaletxean egingo den sinadura bilketara joateko. Ostegun eta ostiralean 9-14etara eta larunbatean 9,30etatik 12etara. Sinadura emateko beharrezkoa izango da NAN-DNI (nortasun Agiri Nazionala eramatea eta Ataunen erroldatua egotea).

Pelikula San Gregorion

'Black Hawk derribado' filma eskainiko da ostiral honetan, apirilak 11, gaueko 21,30etan San Gregorioko Elkargunean. Antolatzaileek aditzera eman digutenez eta, zoritxarrez bada ere, egunerokotasun handiko filma omen dugu honakoa, gerrari buruzkoa baita. Oharra "Gerrari ez Iraken eta ez beste inon" aldarrikatuz amaitu nahi izan dute eta bide batez, aldarrikapen horrekiko nire atxekimendua azaldu nahi nuke.

Agurtzane Bikuña



Iurre auzoko jaiak

Olaberriko Iurre auzoko ospatuko dira apirilaren 30ean eta maiatzaren 1ean. Hauxe da bi egun horietarako antolatutakoen egitaraua:

Apirilak 30, asteazkena

18:00etan: Suziriek emango diote hasiera jaiari. Ondoren, trikitilari eta buruhaundiz lagundutako kalejira egingo da.

18:30etan: herriko haur guztiei merienda eskainiko zaie.

19:00etan: Goiz aldeko 3ak arte indarrean egoteko afari merienda egongo da Kurro etxeko urdaiazpiko, txorizo eta gazta jenez, Elozegi ardorearen laguntzaz.

22:00etatik 3:00etara: Dantzaldia orkestrarekin.

1:00ean: gazte eta helduen mozorro lehiaketa. Lehenengo hiruentzat saria egongo da.

Maiatzak 1, osteguna

10:00etan: Idiazabalgo txistulariekin diana.

10:30ean: Eskulan tailerra. Haur bakoitzak plastilina edo buztinarekin nahi duena egiteko aukera izango du.

11:00etan: San Jose Artisauaren kapilan Meza Nagusia.

12:00etan: Zezilio-eneak eskainitako pintxoekin hamai-
ketakoa bajaran, trikitiaz lagunduta.

17:00etan: Mus txapelketa. Olaberrian bizi direnek edota noizbait Iurren bizi izan direnek izango dute txapelketan parte hartzeko aukera.

17:00etan: Haurrentzako jokoa eta pailazoak.

18:00etan: Toka txapelketa. Olaberrian bizi direnek edota noizbait Iurren bizi izan direnek izango dute txapelketan parte hartzeko aukera.

19:00etatik 23:00etara: Iazarra taldearekin dantzaldia.



Korrika



Korrikaren 13. edizioa, hilaren 4an Maulen hasi eta 13an Iruñean amaitu zen. Bi urtez behin euskararen alde egiten den ekitaldi hau aurreko asteburuan pasatu zen Goierriitik eta beste herri askok bezala Zerainek ere bertan parte hartzeko aukera izan zuen, igande iluntzeko 9:30ak aldera Seguratik pasatu zenean, festa giro ederrean parte hartu ere.

Mari Flor Mendizabal

Immersoko oporraldiak

Immersok 2003-2004 denboraldiako Adinekoen Oporraldi Programa zabaldu du.

Aurreko urteetan eskaera egin zutenak, etxean jasoko zuten eskaera orria, baina aurrean, lehen aldiz eskaera egin nahi dutenek, Udaleko Gizarte Zerbitzuetara joan behar dira ostegunetan, goizeko 10:00etatik 12:etara.

Eskaera egiteko epea, 2003ko apirilaren 30ean bukatzen da..



ARANDIA
Garajea

LADA
Ssang Yong

AUTOEN KONPONKETA

N-1, z/g

☎ 943 88 09 47


Iurre Auzoa
OLABERRIA

ARRIETA

JATE TXEA

☎ 943 88 00 02 **OLABERRIA**

Ezkontzak,
jaunartzeak,
bataioak...
era guztietako
ospakizunak



ondoeta

☎ 943 88 31 02 - 943 88 74 51

Faxa: 943 88 08 72

201 Industrialdea, 18. pabilioia **OLABERRIA**

ALTZAIKUZKO ATEAK:
AUTOMATIKOAK,
BASKULANTEAK,
MARATILDUNAK,
STANDARRAK,
ETA ABAR.

Santakruzak Beheko barrioan

Txirrindulari proba, maiatzaren 4an, arratsaldez

Ermasoko ezitia saritua

Apirilaren 6an, Zegaman burutu zen Gipuzkoako V. Erlezainen egunean, Eujenio Elorzak eta Ageda Zeberioiok aurkeztutako eztiak, Gipuzkoako lehen saria jaso zuen, lorebarkarrekoen (txilarra) modalitatean.

II. San Ixidro pala

Herritarren artean jokatzen ari den pala txapelketaren ligaska fasea amaitua da. Aste honetatik aurrera, 12 bikoteen arteko kanporaketa hasiko da. Ondoren, 6 bikote irabazleek eta 2 galtzaile hoberenek final laurdenak jokatuko dituzte. Finala eta 3. eta 4. postua, maiatzaren 15ean, San Ixidro egunez izango dira.

Bikotekako bola txapelketa

Maiatzaren 4an, Gipuzkoako bikotekako 2. eta azken saioa jokatuko da Segurako Txoritegi bolatokia, goizez 10etatik 11,30etara eta arratsalde, 4,30etatik 5,30etara. Lehen saioa, Urnietan izango da apirilaren 27an.

Iparra-Hegoa V. Margo txapelketa

Martxoaren 29an egin zen aire libreko margo txapelketan 17 artistek parte hartu zuten. Igo saria, Fernando Uretak (Artzeniega) atera zuen, 2. Julio Gomezek (Leioa) egin zuen eta 3. Koldo Gojenolak (Gasteiz). Akzesita, Piedad Santamariarentzat (Leioa) izan zen. Partehartzaileen artean, Ainara Goenaga herritarra aritu zen. Pintura lanak herriko tabernetan jarriko dira ikusgai eta salgai.



● **Maiatzaren 3an, Santa Kruz eguna.** Iluntzean, meza Beheko kurutzan, auzoan hildakoen alde. Ondoren, mokadutxo Udalaren laguntzaz. 21:00etan, auzo afaria bolalekutik behera bizi direnentzat Zopajale elkarteak. Izenak aurrez eman behar dira Germanenen.

● **Maiatzaren 4a. XXIX. Gurutze Deunaren txirrindulari proba.** Segurako txirrindulari elkarteak antolatuta,

ta, Jabier Ormazabalaren oroimenez, jubenil mailako proba korrituko da. Arratsaldeko 4etan Germanenetik irtenda, 18:25 aldera amaituko da leku berean.

Toka txapelketa. Ondoren, herritarrentzako toka txapelketa Germanenen. Lehen emakumezko zein gi-



Auzotarrak meza ondorengo mokadutxoan eta hitz-aspertuan.

zonezkoentzat trofeo bana izango da.

Labur-labur

● **Iparra-Hegoa errifa sari-tuak.** 7623 (martxoaren 26an), 9294 (martxoaren 27an) eta 7227 (martxoaren 28an).

● **Korrika mus txapelketa.** Unai Oiarbidek eta Aitor Oiarzabalek irabazi zuten apirilaren 5ean Idiazabal.

● **Atsedeen jubilatuen elkar-teko urteko batzarra** apirilaren 27an izango da. Hitzaldia: adinekoen osasunari buruzkoa, maiatzaren 8an, 19:00etan kultur etxean. Ondoren mokadutxo.

● **Imsero.** 2003-04 denboraldirako adinekoen oporraldi programa zabalduta. Lehen

aldiz eskaera egin nahi duenak, udaletxeko Gizarte Zerbitzuetara jo behar du, asteazken eta ostiraletan, 8:30etik 13:30era, apirilaren 30a baino lehen.

● **Gutxitasun fisiko edo sensoriala dutenentzako 2003rako oporrak.** Eskabideak, ahal izanez gero, apirilaren 15erako egin behar dira, Gipuzkoako gutxitu fisikoen federazio koordinakundean (943469386 - 943470349).

● **Nazioarteko sega txapelketa** antolatuko bilera, apirilaren 15ean, 19:00etan udaletxean.

● **San Joan jaiak** antolatze-

ko bilera, apirilaren 29an, 18:30ean udaletxean.

● **Diru laguntzak.** Arboladiko lanak kostatu direnaren %68a eta Zerkaldea urbanizatzeko proiektuaren kostearen %20a ailegatu dira Eusko Jaurlaritzatik.

● **Segurak ez du parte hartuko aurtengo Gipuzkoako herri arteko pelota txapelketan,** jubenilen mailan inor ez dagoelako. 1968an txapelketa hasi zenetik, parte hartuko ez duen 2. aldia da.

● **Aste Santua eta hazi bedeinkatzeari** buruzko informazioa 48-49 orrialdeetan.

Joseba Telleria



Patata tortila txapelketan parte hartu zuten sukaldariak.

Korrikako patata tortilak

Apirilaren 6an, Korrika herritik pasatu aurretik, ekitaldiaren aldeko patata tortila txapelketa egin zen plazan. Hamar bikotek parte hartu zuten bertan eta epaileen ustez, tortilarik goxoenak, Marina Paglialunga eta Gurutz Goikoetxeak egindakoa izan zen.



Argazkia: **Josune Bereziartu**
"Bain de Sang", Suitza.
9A Zailtasuneko ibilbidea.
Argazkia: **Rikar Otegi**

Mugak gaindituz

**GOIERRIKO
ARGAZKILARITZA
PROFESIONALA**



Gema Arrugaeta · Oroitz Etxabe
Elkano 8. 20240 Ordizia
Tel/Fax 943-16 22 64
fotoibiltaria@euskalnet.net

Foto IBILTARIA
Josune Bereziartu eta Rikardo Otegiren patrozinatzailea



Disenua: **Iñigo Doria**

Aste Santua Seguran

Gaur egun, Gipuzkoako herri oso gutxitan ospatzen da Aste Santuko prozesioa. Seguran, berriz, ohiturak jarraitzen du. 1727ko agiri notarial batek dioenez, Seguran antzinatik prozesioak egiteko ohitura dago. Prestaketa lanetan 30 segurar aritzen dira, eta

Ostegun eta Ostiral Santuan ospatzen diren prozesioetan 350 lagunek parte hartzen dute. Erramu igande egunez, hilaren 13an, Erramu Bedeinkatzea egin zuten Meza Nagusiaren ondoren. Ondoan duzue datozen egunetarako prestatu duten egitaraua.



Guztira 350 segurar inguruk parte hartzen dute Segurako prozesioan. 65 Santuk eta hamar paso bizigabek parte hartzen dute prozesioan, hamar aingeru txikik eta hamar aingeru handik, 55 nazarenok, 24 penitentek...



Patxi Garaialde 75 urteko anda eramalea eta 3 urteko aingeru Maialen Orikain dira argazkikoak, prozesioan parte hartzen duten zaharrena eta gazteena.

Apirilak 17, Ostegun Santua:

17:00etan: Azken afariko meza Parrokian.

Ondoren, Prozesioa.

Apirilak 18, Ostiral Santua:

8:00etan: Gurutz bidea Santa Engrazitik Sorkundetar Komentura.

14:30ean: Jaunaren Nekaldiaren Ospakizuna eta Gurutzearen jaitea Parrokian.

Ondoren, Prozesioa.

Apirilak 19, Larunbat Santua:

21:30ean: Meza Santua Sorkundetar komentuan.

Apirilak 20, Pazko Eguna:

12:00etan: Meza Santua.



SEGURA

SEGURAKO UDALAK Aste Santuko ospakizun ezberdinetan parte hartzera gonbidatzen zaituzte, gogoraraziz **“Euskal Herriko ornodun mehatxatuak”**

50 paneletan erakusketa ikusgai dagoela
Ardixarrenen apirilaren bukaera arte.



Jaietan ere, euskal preso eta iheslariak gure artean izanen dira. Elorripetik besarkada iraultzaile bat guztiei eta ondo pasa aurtengo jaietan.

☎ 943 80 10 02 **SEGURA**



KENDU

S. Coop. Ltda.

Ebaketa tresnetan
Europako kalitaterik onena
salneurri erabat konpetigarrietan

Industrialdea, z/g
SEGURA

☎ 943 80 13 40
Faxa: 943 80 19 05

Hazi eta ur bedeinkatzea Santa Engrazin

Santuaren eguna apirilaren 16an bada ere, hilaren 21ean, Pazko bigarren egunez, ospatuko da Santa Engrazi ermitako hazi eta ur bedeinkatzea. Soro-baratzetan ereiteko haziak, auzoan hildakoen alde 12:00etan emango den mezaren ondoren bedeinkatuko dira. Meza dirua eta ur bedeinkazioa ere izango da. Meza bukatu bezaien laster Udalak diruz lagundutako hamaiketako eskainiko dute Santa Engrazitako ermitaren sakristau Jose Manuel Ormazabalen sendiak.

Santa Engraziko ermitara Seguratik Mutiloara joateko bidean barrena irits zaitezke, zelai eta baratz ederrez osaturiko ingurura. Ondarra baserriaren ondoan dago. Baserri honetan bizi dira aspalditik sakristau zerbitzuak egiten ari diren Ormazabaldarrak. On-



Tradizioaren arabera, Santa Engraziko ermita izan zen Segurako antzinako parrokia. Egun, ermita berezi eta zaharra izateaz gain, haziak eta ura bedeinkatzen dute.

dorengo lerrootan, Seguran egiten diren baina galtzear dauden tradizioen berri emango dizuegu.

Hazi bedeinkatzea

Garai batean Segura inguruetako nekazari eta baserriar

guztiak apirilaren zain egoten ziren indaba eta arto haziak noiz bedeinkatu zain. Laureano Telleriaren arabera, haziak minbrezko saskitxoetan eramaten ziren ermitara, eta atzera, etxera bueltan, hazi horietako batzuk ganaduari

ematen zitzaizkion, eta gaitz nontzekoak kutxan jasota zeuden haziak nahasten ziztuzten erein ahal izateko.

Ur bedeinkatzea

Ura bedeinkatzea izaten da aspaldiko garaietatik segurarrak mantendu duten beste ohitura. Ontzi ezberdinetan eraman ohi dute ura, eta gero etxera ur bedeinkatuarekin itzultzen dira. Hurrengo egunetan, ur hori etxe inguruko soro, baratz eta zelaian banatzen dute. Errito honekin uzta ona izateko erregua eta babesa sinbolizatzen dute.

Meza dirua

Hamaiketakoarekin barruak goxatzen ari diren bitartean, hurbildutakoak Sakristautxeko sukaldetik pasa ohi dira, urteroko meza-dirua bertan uzteko.

ANTONKALE
EDARITEGIA
SEGURA

SANTA BARBARA
karrozategia
Juan Mari Oiarbide
Kale Nagusia ☎ 943 80 11 60
SEGURA

KALITATEKO
EUSKAL OKELA
Bertako haragia
Gaztak
Etxeko arkumeak...
EROSLE
GOIKO
Zurbano, 8 ☎ 943 80 03 26 **SEGURA**

IMAZ Jatetxea

- ◆ Eguneroko bazkariak
- ◆ Karta

Kale Nagusia, 27 ☎ 943 80 10 25 - 943 80 13 77 **SEGURA**

frutas
amatriain
tel 943 80 11 77
Zurbano kalea 22, behe
20214 Segura

ARANBURU
HARATEGIA
Nagusia, 34
☎ 943 80 10 14 - 943 80 01 41
SEGURA



OTATZA **SAGARDOTEGIA**
Aste guztian zabalik, asteazkena ezik
Larunbat eta igandeetan eguerdiz ere irekita
(asteazkena zehar eguerditan enkarguz)
Apirila bukaera arte sagardotegia
Maiatzetik aurrera erretegi bezala irekita
☎ 943 80 17 57 **ZERAIN**

ZINEA

ITSASONDO:

Apirilak 21: 'Harry el sucio', 22:00etan, Ertotxen.

LEGORRETA:

Apirilak 24: 'Amor ciego', 20:30ean, Herri Zinema.

Emakumezkoen filmeen zikloa:

ORDIZIA:

Apirilak 25: 'Mi vida sin mi', 22:15ean, Herri Antzokian.

antzerkia

LAZKAOMENDI:

Maiatzak 3, Iratxoén Magia haur antzerkia, 16:30ean.

dantza

LAZKAO:

Apirilak 26, Lesakako 'Tantirumairu', Ormaiztegi-Gabiriako 'Goruntz' eta Lazkaoko 'Oin arin' taldeekin dantza jaialdia, 18:00etan.

musika

LAZKAO:

Apirilak 26, Txatunga Benbe perkusio taldearekin kalejira, 20:00etan.

Apirilak 26, Drindots taldearekin dantzaldia plazan, 23:00etan.

Apirilak 27, Paco Formoso eta bere mariatxiak, 20:30ean.

Apirilak 28, Briganthya taldea, 22:00etan.

Apirilak 29, Luhartz taldea, 22:00etan.

Apirilak 30, Drindots taldea, 20:30ean.

Maiatzak 1, Golden Apple Quartet taldea, 23:00etan, plazan.

Maiatzak 2, Euskadi Gaztearen disko festa Joxeina Etxeberriarekin, 22:30ean, Lazkaoko tabernarien antolatuta.

bertsoak

GABIRIA:

Apirilak 26, Osinalde sari-ko finala, 22:00etan.

LAZKAOMENDI:

Maiatzak 4, Mañukorta eta Zeberio bertsolarien saioa, 12:00etan.

pailazoak

LAZKAO:

Apirilak 28, Potxin eta Patxin pailazoak, 12:00etan.

Apirilak 30, Azkona taldeko pailazoen emanaldia, 17:30ean.

hitzaldiak

IDIAZABAL:

Maiatzak 6, Teleasistentziari buruzko hitzaldia, 18:00etan, Pilar Enean.

ikastaroak

BEASAIN:

Maiatzean zehar, Marta Imazek 'Festetako menua' sukaldaritza ikastaroa eskainiko du. Maiatzeko asteazkenetan izango dira ikastaroak, 15:30etatik 17:30era. Izena emateko Asmube elkartera jo behar da.

erakusketak

BEASAIN:

Apirilaren 25era arte, 'Animalientzako ez dago eskubiderik' argazki erakusketa zabalik Antzizar kiroldegian, Sugandila Animalien Eskubideen Aldeko taldeak antolatuta.

Apirilaren 29tik aurrera, Txindoki-Alkartasuna institutuko BHIko lanak erakusgai Usurbe Antzokiko erakusketa aretoan.

IKASTEK AKADEMIA

Joan Iturralde, 5 BEASAIN
☎ 943 160 120

ESKOLA LAGUNTZA

- ✳ Lehen hezkuntza, DBH
- ✳ Batxilergoa
- ✳ Moduluak, Zikloak
- ✳ Unibertsitate-maila

GOIERRIKO UNIBERTSITATEA

- ✳ Marraketa teknika
- ✳ Fisika
- ✳ Matematika
- ✳ Teknologia

TAILERRAK

- ✳ Ortografia, Idazmena
- ✳ Irakurmena, Ulermena
- ✳ Matematika, Kalkulua

IKASKETA ARAZOAK

- ✳ Atentzioa
- ✳ Ohiturak, Metodoak
- ✳ Emozioen kontrola

www.ikastek.net
ikastek@ikastek.net



Zure ahotsa lakarra bada, hitz egiterakoan eztarria erresumintzen bazaizu, min hartzen baduzu edo oinuren bat ahozkatzeko arazoak badituzu...

Mintzaera, berba eta ahotsaren gorabeheren tratamendua, diagnostikoa eta prebentzioa

afots Logopedia

Nagusia 2 1ºEsk. 20200 Beasain Tfnoa 605 71 69 15 - 655 73 67 35



ILEAPAINDEGIA

Zatoz eta aurkitu zure estiloa

Tratamenduak

Koloreak

Korteak

Moldeatuak

ESTETIKA ZENTRUA

Biodepilazioa:
Zirukulazioarentzat onuragarria
ile ahalitzen du
Azala garbitzen du

Aurpegiko tratamenduak
produktu naturalekin

Oriamendi kalea, Etxuri etxea BEASAIN

Tel./Faxa: 943 88 32 52

XI. Gerriko Ikerlan-bekako lanak aurkezteko epea apirilaren 30ean amaitzen da

Goierriko Euskal Eskola Kultur Elkartek, Maizpide Euskaltegiak eta Lazkaoko Udalak antolatutako XI. Gerriko Ikerlan-bekara lanak aurkezteko epea, bukatzeaz dago. Apirilaren 30ean, eguerdiko 12etan amaituko epea.

6.000 euroko beka jasoko du/te irabazleak eta urtebeteko epea izango du/te lana amaitzeko.

Ikerketarako beka-deialdi honetan edonork har dezake parte. Bakarka nahiz taldeka egin daitezke ikerlanak.

Ikerlanaren gaia Gipuzkoako Goierri dagokion edozein zientzi alorretakoa izan daiteke. Herri mailakoa nahiz eskualde-mailakoa izan liteke. Edozein garaitako ikerlanak onartuko dira. Herriei buruzko monografiak ere aurkez daitezke.

Lanaren proiektuak aurkeztu behar dira, 15 bat orrialdekoa. Ikerketa esparrua, izenburu eta tesia, materialak eta lan metodologia, helburuak, ikerlanerako plana, ikerlanaren interesa... zehaztu beharko dira besteak beste.

Proiektuarekin batera, eskatzailearen edo eskatzaileen datuak bidali behar dira.

Lanak bidaltzeko edo informazio gehiagorako, Goierriko Euskal Eskolako telefono zenbakia: 943 16 02 82 eta helbide elektronikoa: gee@euskalnet.net.

mendi irteerak

BEASAIN:

Apirilak 27, Larraitx-Igaratza-Goarda Etxe-San Migel, Aizkorri Mendizale elkarteak antolatuta.

ORDIZIA:

Apirilak 26, Murumendi - Ikaztegieta, Ordiziako Mendizale taldeak antolatuta.

Maiatzak 4, Gereñu-Musitu-Erroitegi, Ordiziako Mendizale taldeak antolatuta.

GOARDIAKO FARMAZIAK

Astegunetan: Jauregi

(Santa Maria, 2 - Ordizia). 943 160949.

Apirilak 19-20: Azpilikueta

(Kale Nagusia, 18 - Beasain). 943 880152.

Apirilak 26-27: Jauregi

(Santa Maria, 2 - Ordizia). 943 160949.

Maiatzak 3-4: De la Cuesta

(Nafarroako etorbidea, 39 - Beasain). 943 880587.



Sasietak 'Birziklapenaren jaialdia' antolatu du Beasainen, maiatzaren 7an

Sasietak urtero Goierriko ikastetxeekin 'Ingurumen Heziketa' kanpaina antolatu ohi du. Kanpaina honen oinarria eta atalik eza-gunena instalazioetara egiten dira bisitak dira (zabortegia, BioSasieta, ontziak sailkatzeko plan-ta). Bisita hauek osatzeko lehiaketak ere antolatzen ziren aurreko urteetan, esate baterako kartel eta jostailu lehiaketak.



Aurten lehiaketa hauek antolatu ordez ekintza berri bat egitea erabaki du Sasietak. Ekintza hau 'Birziklapenaren jaialdia' izango da. Bi saio egingo dira. Bata Beasaingo Usurbe Antzokian maiatzaren 7an eta bestea Zumarragako Zela-Aristin maiatzaren 9an. Bien artean ia 600 ikasle elkar-tzea espero dute antolatzaileek.

Goierriko eta Urola Garaiko L.H.ko 6. mailako ikasleen elkargune bilakatu nahi duen ekitaldi honen ardatza, gaikako bilketan eta birziklapenaren gaian oinarrituriko talde jolasak izango dira.

Jaialdiaren ezaugarriak

Lehiaketen helburu nagusiak bi izaten ziren. Alde batetik, zaborra eta birziklapenaren gaiak ikastetxean lantzea eta bestetik, lan honengatik sari bat ematea ikasleei. Jaialdi honekin helburu berdinak lortu nahi dituzte, baina ikasle gehiagotara iritsiz. Hau da, eskolan gaia landu ondoren jaialdia sari bat izatea espero dute ikasle guztientzat. "Modu honetan lehia kutsua kentzen diogu kanpainari, ingurumena denon kontua baita eta denok elkarrekin zaindu beharrekoa", diote Sasietako arduradunek.

Jaialdiaren oinarria talde-jolasak izango dira eta ikasleen parte hartzea zuzena. Saioa girotzeko pertsonaia ezagun batzuen laguntza izango dute Sasietakoek. Anjel Alkain arituko da aurkezle lanetan. Hari laguntzeko Goenkaleko Ainhoa Aierbe, Txan magoa eta Ugako abeslaria.

Ikasleak, jolas hauetarako, hiru taldetan banatuko dituzte: talde horia, talde berdea eta talde urdina, birziklapenaren 3 koloreak. Jaialdia ikastetxean bertan egindako lanaren azkeneko urratsa izango da. Ekitaldi honi buruzko informazio gehiago www.sasieta.net orrian aurki dezakezue.

OINETXE

konponketak 24 ordutan

Tintaketak
Kremailerak
Botoi forratuak
Brotxeak



Errematxeak
Kolorezko kremak
Kolorezko tintak



Plantilak
Lokarriak
Horma



Kale Nagusia, 44 Tel.: 943 88 90 89 BEASAIN

Ordutegia: 6:00-14:00 eta 16:00-20:30

Etxebizitzak

salgai

➔ Zegaman etxebizitza salgai, garaje eta ganbararekin, Txarape auzoan. 666634666.

➔ Etxebizitza salgai Idiazabalen. Sukaldea, egongela, hiru logela, bi bainugela, bi terraza, ganbara eta garaje itxia. Pisu ezinhobea. 677595814.

➔ Pisu salgai Ataurien. Ekonomikoa. 943180106.

➔ Etxebizitza salgai Beasaingo Garmendia Otaola 5ean, 3. solairua eskuina. 112 metro koadroko azalera erabilgarria, eta 24 metro koadroko ganbara. 943881612.

➔ Korellan (Nafarroa) etxea salgai. 646971488.

➔ Bi etxe eta bajera salgai Zegaman. 948180842.

➔ Idiazabalen etxebizitza salgai. Inguru berria dauka. Sukaldea, egongela, bainugela, hiru logela eta trasteroa. 699822469.

errentan eman

➔ Altzairuz hornituri-ko pisua alokatzen da Zegaman. 943800439.

➔ Etxe bat alokatzen da Zegaman. 650752894.

➔ Garagartza plazan pisua alokatzen da. 670086942.

➔ Urbasako mendilerroan etxea alokatzen da asteburu, zubi eta oporretarako. 9434533981.

Garajeak lokalak

salgai

➔ Beasaingo Erauskin kalean 100 metro koadroko garajea salgai. Prezio interesgarria. 603931449.

➔ Beasaingo Nafarroa Etorbidea 33 kalean 30 metro koadroko lokala salgai. Beharrezko instalazioak dauzka, erai-kuntza eginda dago. Prest irekitzeko. 943882106 / 943806012.

errentan eman

➔ Lazkaon lur azpiko bi garaje alokatzen dira Jose Lasa kalean. Iluntzean deitu. 943885574.

➔ Ordizian garaje itxia alokatzen da. 653011954.

Negozioa

salgai

➔ Liburudenda saldu edo alokatzen da Beasainen. Prentsa salmenta, eskola ondoan. 616698236.

errentan eman

➔ Estetika kabina handia alokatzen da Beasain erdian dagoen ile-

apaindegi batean, estetika eta masaje lanak egin eta bestelako terapietarako. Interesgarria. 943883252.

Ibilgailuak

salgai

➔ Kawasaki Ninja ZX-6 motoa salgai. 1998. urtekoa. 650191474.

➔ Kawasaki GPX markako motorra salgai. 600 c.c.koa. 900 euro. 605712473 / 943766401.

➔ Peugeot 309 Vital markako autoa salgai. SS-AP. Garajejan egona. 2.400 euro inguru. Prezio negoziagarria. 609030621.

➔ Benimar markako karabana salgai. Ekonomikoa. 943028494.

Animaliak

salgai

➔ Bi behi lomousin kartadunak salgai. Bigarren umezkoak. 656717932.

➔ Cocker Spaniel arrazako txakurkume arrak salgai. Hiru hilabete, txipa eta bakuna guztiekin. 655703102.

➔ Hazitarako zaldi 'kaneloa' salgai. Deitu gaudetan. 943888682.

➔ Bi txekor limousin 10 hilabetekoak salgai. Oso onak. 943800490.

Bestelakoak

salgai

➔ Errepideko bizikleta salgai, Colnago markakoa. Oso gutxi erabilia. 656701024.

➔ Erabili gabeko bi somier salgai 84 eurotan. Interesatuek deitu 943885839 telefonora. Deitu gaueko 9etatik aurrera.

➔ Karreratako txirrin-dua salgai. Koadro saritu neurria 54. Urdin kolorea. Osagarriak: Shimano 600. Gurpilak: Rigida-Shimano 600. 7 pinoi. Kubieta estuak. Pedal Shimano automatikoak. 300 euro. 651705011. Ion.

➔ Yasmin de Takamine etxeko kitarra elektrotro akustiko beltza salgai. Egoera oso onean. 540 euro. 658751647.

➔ Terrenoa erosi nahi da. Ordeka samarra, eta borda badu hobe. Lazkaomendin, Gaintzan edo Zaldibian. 943161828.

➔ Urbasako kanpinean karabana salgai, bere abantzearekin. 943187314.

➔ Sutarako egurra salgai. Bi metrotan moztua. Arratsaldeko 20:00etatik aurrera deitu. 943880905.

➔ Litera salgai 90cm-koa, eskailerakin, burdin-zezkoa, zuria. Bi edredoi eta bi koltxo opari. Estreinatzeke daude. 601 euro. 943881380.

➔ Bi akumuladore berogailu salgai. 300 euro. 652755173.

➔ Egurrezko ateak erdi prezioan. 652755173.

➔ Masajeak emateko makina salgai. 652722638.

➔ Ampeg anplifikadore salgai. 150W-ko potentzia, combo. 659754483.

➔ Ezkon jantziak salgai. Emakumezkoarena eta gizonezkoarena. 44 neurrikoak. 619364749.

erosi

➔ Añamendi entziklopediko ale banakoak erosiko nituzke. 943117355.

➔ Bigarren eskuko eskaladarako materiala erosiko nuke. Sokak, arnesa eta expresak. 659034934.

errentan eman

➔ Garraio titulua alokatuko nuke. 645715578.

Mintza praktikak

➔ Mintza praktikak egiteko Goierri edo inguruko pertsona bat bilatzen da. Nik frantsesa praktikatuko nuke, eta euskara edo gaztelarazko mintza praktika eskainiko nioke. 943180389. 20:00etatik aurrera deitu. Asier.

Lana

eskaintzak

➔ Neska eskaintzen da arratsaldeetan garbiketeta lanetan aritu edota pertsona helduekin egoteko. 647896460.

➔ Neska eskaintzen da goizetan haurrak zaintzeko. 679556500.

eskaerak

➔ Neska edo emakume euskalduna behar da Beasainen etxeko lanak egin eta haur bat zaintzeko. 943085602.

➔ Kamarera bat behar da asteburuetan lan egiteko. Euskalduna. 943880044.

➔ Ordizian taxi plaza salgai. 943881515 / 627862306.

➔ Pertsona euskaldun bat behar da Beasainen bi haur zaindu eta etxeko lanak egiteko. 943086598.

➔ Promozioetarako langileak behar dira, 18 urtetik 45 urte bitartekoak. Soldata lehiakorra. 616941892.

➔ Neska edo emakume bat behar da sagardotegi batean lan egiteko larunbat iluntzetan eta igande batzuetan. 615700408.

➔ Neska euskalduna behar da Ataungo taberna batean arratsalde ordu batzutan lan egiteko. 943180019.

➔ Goierri Erreabilitazio zentzurako fisioterapia behar da. 943881271.

➔ Ogia banatzeko ba-

Justizia Ministeritzak Euskal Herrirako enplegu publikoa eskaintzen du: 42 laguntzaile, 10 agente eta 23 Justizia ofizial. Adozek informatzen du. 943444509.

Aireportuak. AENAK eskainitako 250 lanpostu. Aire kontrolatzaileak. Eskakizuna: ingelera maila ertaina. Adozek informatzen du: 943444509.

Gida eskola irakaslea. Diru sarrerak: 1.500 euro inguruan. Langabeziarik gabeko lanbidea. Presta zaitez. Adozek informatzen du. 943444509.

Udaltzaina. Bertako Udaletan egin ezazu lan. Laster deialdiak. Eskakizuna: Eskola Graduatua. Presta zaitez. Adozek informatzen du. 943444509.

lanatzailea behar da. 943084189/651706818.

Garraiolaria. Profesional bilakatzeko titulua lor ezazu. Hedapen prozesuan dagoen sektorea. Adozek informatzen du. 943444509.

Basozaina. Lanera altxatzeak etengabe. Euskal Herriko Parke eta Natur Erreserbetan egin ezazu lan. Eskakizuna: Eskola graduatua. Presta zaitez. Adozek informatzen du. 943444509.

Osakidetza. Laster deialdiak: erizain laguntzaileak, ATS/DUE eta zaindariak. Presta zaitez. Adozek informatzen du. 943444509.

Liburutegi laguntzaileak. Bertako Udaletxe, agiritegi, dokumentazio zentru eta e.a. tan lanpostuak. Adozek informatzen du. 943444509.

Suhiltzaileak. Berehalako lan hasiera. Euskal Herriko parkeetan egin ezazu lan. Lan baldintza ezinhobeak. Eskakizuna: Eskola Graduatua. Adozek informatzen du. 943444509.

Administrariak. (Tekniko eta laguntzaileak). Laster bertako Udaletxe eta Erakundeetarako langileak. Eskakizuna: Eskola Graduatua. Presta zaitez. Adozek informatzen du. 943444509.

Eskola graduatua edukita: Harreragileak, lorezainak, txoferrak, atezainak. Ofizio-funtzionari bezala Udaletxe eta Erakundeetan lan egiteko. Adozek informatzen du. 943444509.

➔ Neska euskalduna behar da Gaintzan haurrak zaintzeko.

943889307/943888574. Gauetz deitu.

Lirain

Lurrindegia eta opari gaiak

San Inazio, 14 ☎ 943 889 390 BEASAIN
Garagartza pl., 1 ☎ 943 805 327 ORDIZIA

Alpe

SUKALDE ALTZARIAK

sukalderik goxoenak

Mariarats 10 Beasain
Tfno/Fax 943 88 86 84

STETSU

Bordatu mota guztietan berezitako mertzeria: kortinak, etxeko arropa, haurrak, anagramak, txapelak...

Josteko makinak salmenta eta konponketa

Zure argazkiak gurutze-puntuari

LINUE ZEGAMAKO artisau ehungintza

Tel.: 647 628 187

Esteban Lasa, 3 BEASAIN

AUZOKI

Komunitateen administrazioa
Kol. Zerb. 599
Urdaneta 52-behea. Ordizia.
Tel.: 943 087 486
635 703 671 / 635 702 570

- Jabekideen komunitatea osatzea
- Komunitateen kontabilitatea
- Akten idazketa
- Aurrekontuen eskaera
- Aholkularitza legala
- 24 orduko asistentzia
- e.a.

Gaztelu

- Iturgintza
- Berogintza

Mendi-Ondo etxea
☎ 943 88 40 57
ZALDIBIA

Esteban Lasa, 7
☎ 943 88 80 29
BEASAIN



Lazkaoko dantza taldea 1960 urte inguruan

Goiko ilaran ezkerretik eskuinera: Iñaki Begiristain, Patxi Teilatu, Marian Aldasoro eta Pepe Tejados.

Erdiko ilaran: Angel Eztala, Ana M^a Aldanondo, Inixi Altuna, Maribel Arratibel, Maixel Aldasoro, Mari Karmen Ur-dangarin, Pili Iriarte eta Jose Inazio Zufiria.

Behoko ilaran: Antonio Irastorza, Joxe M^a Irastorza, Ana M^a Agirre, Juanjo Cuadrado, Joxe Migel Irizar eta Jesusito Men-dia.



MAPFRE

ASEGURU TALDEA

Festa onak pasa!

Pello Barandiaran

☎ 943 16 13 61
Jose Lasa, 3
LAZKAO

Ana Belén
ILEAPAINDEGIA

☎ 943 88 26 31
Gurutze, 2 LAZKAO



TAPIA

TELEKOMUNIKAZIOAK eta
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

Enpresa baimendua

- Kiroldegi - Eskola - Etxebizitza eta industrirako instalazioak
- Automatismoak - Kontrolak - Mantenimenduak

Ibabe Industrialdea, 21
☎ 943 88 95 94
LAZKAO

ARTANO

Jai zoriontsuak denoi!



ARRANDEGIA

Uhaitz, 2 ☎ 943 882 444 LAZKAO

LORENA

Jai zoriontsuak denoi!



ARRANDEGIA

Hirigoien, 18 ☎ 943 88 5171 LAZKAO



AUTO ESKOLA

Ondo pasa festak!

Laister helbide berria!

Elosegi 19 LAZKAO

☎ 943 88 72 99

Negueruela

Jai zoriontsuak lazkaotar guztioi!

**BITXITEGIA
ERLOJUTEGIA**



☎ 943 16 08 30

Jose Las, 3

LAZKAO



Jose Agustin Jauregi

Tel. eta Faxe: 943 886 558
Poltsikoko telefonoa: 616 698 288



- Pankartentzat errotulazio bereziak
- Fatxadako toldoak
- Motorizatuak eta automatikoak
- Estaldurak eta itxidurak
- Toldoak alokairuan
- Kamioientzako toldoak: Tir toldoak
- Toldo korrederoen prestaketa
- Errotulazio eta inpresioa lonetan eta zurrunetan

ERAKUSKETA:

Lorategiko eta terrazako altzariak, kolore ezberdinetako aluminio lakatuan

Zubi-Erreka Industrialdea, 42

LAZKAO

toldosagustin.com

e-posta: auxkin@toldosagustin.euskalnet.net



Beharko duzulako

hau izango da zuretzat opari aproposena

Zure ohearen aurrekontu zehatza eskatzera bazatoz, honako iratzargailua oparituko dizugu, badakigulako, swissflex ohe bat aukeratuz gero, benetan lo egitea zer den ondo ikasiko duzula. Benetan beharko duzu.

SWISSFLEX

GOIERRIKO BANATZAILE OFIZIAL BAKARRA

Eskaintza honek iratzargailuak bukatu bitartean bakarrik balio du

